




Blitz
Eskolako
Liburutegiko
Bilduma
Sorta
Iaranja

Blitz sorta Iaranjaiko titulu berri honek (*Debaterako argudiatu. Bigarren Hezkuntzako arlo guztietarako proposamena*), Antonio UnzuÉk idatzia, sakontzen du ahozko gaitasuna zabaldu, pentsamendu kritikoa garatu eta ikasleek parte hartu beharraren gaietan, ahozko adierazpena, ahozko erregistro formalak eta portaerako arau sozial zenbait menderatzea dela medio.

Antonio Unzué Unzué irakasleak, debatea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakastearen inguruko arazo orokorrak aztertu ondoren, xeheroago aztertzen du sekuentzia didaktikoaren eredu hezkuntza plangintzarako baliabide gisa eta DBHko irakasleei proposamen hertsia eta praktikoa eskaintzen die eredu hau debatean aplikatzeko.



**Debaterako argudiatu.
Bigarren Hezkuntzako arlo
guztietarako proposamena**

ANTONIO UNZUÉ UNZUÉ



 **Blitz** sorta laranja


.....
**Debaterako argudiatu.
Bigarren Hezkuntzako arlo
guztietarako proposamena**

ARGITARATZAILEA
Nafarroako Gobernua
Hezkuntza Departamentua

EGILEA
Antonio Unzué Unzué
DISEINUA
Asís Bastida

INPRIMAKETA
Industria Gráfica Ona, S.A.

L.G. NA - I.208/2009
ISBN 978 - 84 - 235 - 3144 - 8



**Debaterako argudiatu.
Bigarren Hezkuntzako arlo
guztietarako proposamena**

ANTONIO UNZUÉ UNZUÉ



AURKEZPENA

Demokrazia aurreratuko gizarteen ikur diren heldutasun ezaugarrien artean bereziki aipagarria da haietan ideiak azaltzea eta iritzia debaitzea talde portaeren eta pertsonen arteko harremanen eredu “naturala” izaten dela. Hortaz erraz ulertzen da biziki komeni dela hezkuntza sistemetan hainbat balio eta printzipio sartzea elkarbizitza, askatasuna, gizarte bizitasuna ez ezik, pertsonen ekimenerako gaitasuna sustengatzen dutenak eta bakoitzaren talentua aurkitu eta berretzea.

Nola hezkuntza gaii buruzko berrikieneko lege jarraibideek nola Europako batasunak gomendatzen dituzten ekintzarako jarraibideek –bereziki PISA (Programme for International Student Assessment) ebaluazioen emaitzak agertu zirenetik, denek azpimarratzen dute zer garrantzia duen ikasleengan oinarritzko gaitasunak garatzea eta bai hain bat trebetasun ere norbere buruaren errealizaziorako, gizartean txertatzeko hiritar aktiboa izateko eta lan munduan hasteko gai egiten dituztenak. Ikasgelan debateak egiteak, eta ikasgai guztietan, hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna ez ezik, beste hainbat gizarte trebetasun ere abiarazten ditu, erantzunbeharra gain hartu, epaimen kritikoa sendotu edo portaera demokratikoko eredu barneratzearen ingurukoak.


Blitz sorta laranjako titulu berri honek (Debaterako argudiatu. Bigarren Hezkuntzako arlo guztietarako proposamena), Antonio Unzuék idatzia, sakontzen du ahozko gaitasuna zabaldu, pentsamendu kritikoa garatu eta ikasleek parte hartu behar diren gaitan, ahozko adierazpena, ahozko erregistro formalak eta portaerako arau sozial zenbait menderatzea dela medio.

Antonio Unzué Unzué irakasleak, debatea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan irakastearen inguruko arazo orokorrak aztertu ondoren, xeheroago aztertzen du sekuentzia didaktikoaren eredu hezkuntza plangintzarako baliabide gisa eta DBHko irakasleei proposamen hertsia eta praktikoa eskaintzen die eredu hau debatean aplikatzeko.

Neure esker onik handiena adierazi nahi diet irakasleei arlo guztietako Bigarren Hezkuntzako irakasle taldeek egiten duten ahaleginagatik eta dedikazioagatik ikastetxeetan hainbat ekimen eta proiektu ezarri eta burutan ateratzeko, Nafarroako ikasleen gaitasunak hobetu beharrez pentsatuak. Esperantza dut liburu hau baliabide lagungarria izanen zaiela eta beren irakaslanaren osagarri ona. Ez dut dudarik batere egiten ikasgelan debatea saiatu eta praktikatu gure neska-mutilak hobeki prestatuta aterako direla hiritar aktiboak eta arduratsuak izateko eta elkarrekin askatasunean bizitzeko, biak baitira oinarri ezinbestekoak benetako gizakitasuna galdu ez, egia bilatu eta arrazoiaren eta hitzaren indarra erabiltzeko.


Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

HEZKUNTZA KONTSEILARIA



Orrialdea

7	1.	DEBATEAREN IRAKASKUNTZARI BURUZKO GOGOETA
8	1.1	Ahozko hizkuntza formala DBH-ko curriculumean
11	1.2	Ahozko genero formalak eta esku-hartzea ikasgelan
14	1.3	Oinarrizko gaitasunak eta debatea
16	1.4	Debatea eta testu-ezaugarriak
19	1.5	Debatea eta aniztasunarekiko arreta
21	2.	SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN EREDUA ETA HORREN APLIKAZIOA DEBATEAN
22	2.1	Sekuentzia hezkuntza-plangintzaren baliabide gisa
25	2.2	Sekuentziaren eskema eta xedeak kurtsoka
36	2.3	Erreduaren bilakaera
36	2.3.1	Egoeran jartzea
44	2.3.2	1. modulua - Antolakuntzako xehetasunak
49	2.3.3	2. modulua - Dokumentazioa eta argudiobidea
60	2.3.4	3. modulua - Elkarreragina debatean
72	2.3.5	Azken ekoizpena
75		Bibliografia



1.

**Debatearen irakaskuntzari
buruzko gogoetak**

I.1 Ahozko hizkuntza formala DBH-ko curriculumean

Hezkuntza eremuko legeek aspaldidanik nabarmentzen dute hizkuntza arloetako komunikazio ikuspegia. Hala ere, ikuskera horrek eragina du baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gainerako arloetan ere. Horrela, LOEk, hezkuntzaren xede-etara zuzenduriko artikuluan, bi helburu ezartzen ditu, hizkuntza menderatzearekin lotuak biak. Alde batetik, dio testuak, hezkuntzaren zeregina da “hizkuntza ofizialean, eta, halakorik izanez gero, baita koofizialean ere, gehi atzerriko hizkuntza batean edo gehiagoetan komunikatzeko gaitasuna lortzea”. Komunikazio alderdia azpimarratzeak eragina du, beraz, curriculum arlo orotan, etapa horretako funtsezko xedea baita. Beste alde batetik, eskolako lanak, halaber, ikasleak hiritar gisa aritzeko eta bizitza ekonomikoan, sozialean eta kulturean parte-hartze eraginkorra izateko gaitasuna lortzea du helburu, jarrera kritikoa eta arduratsua izan dezaten eta ezagueraren gizartean suertatzen diren egoera aldakorretara egokitzeko gai izan daitezen. Xede horren bidez, beraz, zenbait trebetasun garatu nahi dira, gizabanakoak gizartean erabat integratzeko aukera izan dezan. Alde horretatik, ahozko hizkuntza formala gero eta hobeki menderatzea ezinbestez bete beharreko baldintza da, ikaslea trebatzen baitu bere adierazpen ahalmenak forma aldetik maila desberdinekoak diren eta helduen bizitzari dagozkion komunikazio testuinguruetara egoki ditzan.

Lege horrek berak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako pedagogia-printzipioak seinalatzean, agerian jartzen du oinarrizko gaitasunak erdiestearen eta “mintzame-
na zein idazmena garatzearen garrantzia”. Funtsezko puntua da eta ez da komeni arestian aipaturiko komunikazio ikuspegitik bereiztea. Hori guztia, beraz, egunero-ko praktikan islatu beharra dago, hizkuntza arloetan ez ezik, baita curriculumaren multzo osoan ere.

Idea berbera ageri da Nafarroan Derrigorreko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzarako curriculumaren ezartzen duen Foru Dekretuan. Dekretuak aipatzen dituen printzipioen artean nabarmentzen da “Oinarrizko gaitasunak curriculumaren arlo guztietan zehar ikastea; irakurmenaren, idazketaren eta mintzamenaren tratamendu etapetako arlo guztietako ikasketan zehar”. Hortaz, arlo guztien bitartez, horien ikuspegi berariazkoarekin bat, oinarrizko gaitasunen garapen progresiboa segurtatu behar da, besteak beste mintzamen formala menderatzea, komunikazio gaitasunaren osagai den aldetik.

Dekreto berak ahozko hizkuntza formalarekin eta, bereziki, debetearekin loturiko beste printzipio batzuk ere nabarmentzen ditu. Ahozko genero horiek erregistro formala gero eta gehiago menderatzea eskatzen diote hiztunari, bai eta nolabaiteko jokabide sozialak ere. Halaber, zorrotz planifikatzea eskatzen dute, berezko genero xaloetatik bereiziz, bai eta ahozko elkarreragina kontrolpean izateko hein bateko heldutasuna ere. Era horretan, ahozko genero formalak lantzea, eta debatea bereziki, bide egokia da legean aipatzen diren beste printzipio batzuk betetze-ko: “honako hezkuntza-balio hauen sustapena: emozioen kontrola, iraunkortasuna, hutsegiteetatik ikasteko eta arriskatzeko gaitasuna; sormen, konfiantza, erantzukizun eta zentzu kritikoz banaka nahiz taldean prestatuturiko proiektuak irudikatu, abian jarri, burutu eta ebaluatzeko gaitasunaren garapena; elkarrenganako errespetuan oinarria duten balio eta praktika demokratikoen bidez elkarrekin bizi eta gatazkak konpontzea”. Izan ere, ahozko genero formalak eta batik bat debatea lantzea lagungarri da nork bere burua kontrolatu ahal izateko, ardurak bere gain hartu, irizpide kritikoa garatu eta jokaera-arau demokratikoak bereganatzeko.

Ildo beretik, Foru Dekretuan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako adierazten diren xedeetako bik eragina dute xehetasun hauetan. Alde batetik, hizkuntza gaitasunaren garrantzia azpimarratzen da, izan ere, ikasle orok “ahoz nahiz idatzizko gaztelaniazko (edo, hala badagokio euskarazko) testu eta mezu konplexuak ulertu eta zuzen adierazteko gai izan behar du”. Beste alde batetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen helburua izanen da “betebeharrak erantzukizunaz beren gain hartzea, beren eskubideak ezagutu eta baliatzea, gainerakoekiko begirunez, betiere; tolerantzia eta pertsonen eta taldeen arteko elkartasuna praktikatzea, giza eskubideak gizarte plural baten balio komun gisa sendotzeari begira elkarrizketa erabiltzea eta hiritartasun demokratikoaz baliatzeko prestatzea”. Xede honek komunikazio praktikoa eta balio demokratikoak elkarrekin lotzen ditu argiro, eta, hain justu, ahozko genero formalen bitartez arautzen dira, lehentasunez, komunikazio trukeak harreman sozialetan. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako beste xede batzuek ere ukitzen dituzte genero horiek: horrela, “informazio iturriak erabiltzerakoan diziplina ohiturak eta lana taldean egitea bezalako oinarrizko trebetasunak garatzeak” zernolako garrantzia duen azpimarratzen da eta, orobat, “espiritu ekintzaileak” eta “parte-hartzeak”.

Hizkuntza arloez gainera, irakasgai guztiek beren curriculumetan sartzen dituzte ahozko hizkuntza formala garatzeko xedeak. Natur Zientzien arloan, hirugarren xedea da “eduki zientifikoa duten mezuak ulertzea eta adieraztea, hizkuntza ahozkoa eta idatzia modu egokian erabiliz, diagramak, grafikoak, taulak eta matematikako adierazpenak interpretatzea, bai eta beste batzuei zientzia arloko argudioak eta adierazpenak jakinaraztea”. Xede horrek, jakina, mintzamen formala menderatzea eskatzen du eta inplizitoki bi genero hauek hartzen ditu kontuan, azalpena eta debatea, ikasleak adierazpenak egiten jakin beharko duelako bai eta bere ikuspuntua arrazoitzen ere.

.....

Zehatzagoa da, alde horretatik, Gizarte Zientziak, Geografia eta Historia arloko curriculum. Hamargarren xedeak debateak egitea gomendatzen du, komunikazio edo hiritartasuneko gaitasunak garatzeko bide gisa, zera proposatzen duenean “lanak taldeka egitea eta debateetan esku hartzea, jarrera konstruktiboa, kritikoa eta jasanbera izanik, iritziak era egokian oinarrituz eta gizakien eta gizartearen arazoei konponbidea emateko premiazko bide gisa elkarrizketa balioetsiz”.

Orobatsu, Hiritartasunerako Hezkuntza arloan, bigarren xedearen barnean hizkuntza gaitasuna garatzea gomendatzen da bai eta gizarte eta hiritartasun gaitasuna erabiltzea ere, hamahirugarren xedean, hain zuzen ere, honela agintzen duenean “pentsamendu kritikoa erdiestea, norberaren irizpidea garatzea eta nork bere iritziak debateetan defendatzeko trebeziak eskuratzea, argudiobide dokumentatuaren eta arrazoituaren bitartez, bai eta besteen arrazoiak eta argudioak balioestea”.

Azken finean, irakasgai guztiek beren baitan hartzen dituzte mintzamina aberasteko premiarekin eta pensamendu kritikoa eta partehartzea garatzearekin bat heldu diren xedeak.

Eta honetarako Hizkuntza arloari dagozkion ezagueren gainean, horietako zenbait ahozko genero formalekin lotzen dira. Besteak beste, nabarmentzen dira “ahozko elkarreragin mota desberdinei buruzko kontzientzia (hizketaldiak, elkarrizketak, debateak, etab.) eta ahozko mintzairaren estilo eta erregistro desberdinen oinarritzko ezaugarriak”. Kontuan hartzen dira, orobat, hizkuntza sistemaren beste kode osagarri batzuk, bereziki “komunikazioaren bereizgarri paralinguistikoen ulermena (ahotsaren ezaugarriak, aurpegi-espresioak, keinuen eta posturen sistemak)”. Era berean, ikasleak “konturatu beharko dira hizkuntza aldakorra dela eta komunikazio moduak denboran zehar eta ingurune geografiko, sozial eta komunikatiboen arabera aldatuz doazela”. Eta halaxe da, izan ere gizartearen barneko bizi-moduak hiritarra behartzen du halako baldintza batzuk errespetatzera, komunikazio inguruabar batzuen eraginpean. Ikasleriak, erregistro aldaketek ez baitago batere ohitua, diskurtso formalaren ezaugarriak bereganatu beharko ditu, eta horixe da, hain justu, eskolako esku-hartzearen lehentasunezko edukia.

Gaztelaniaren arloko trebetasunak, besteak beste, honakoa hartzen dute beren baitan: “elkarrekin ahoz edo idatziz komunikatzeko gaitasuna”, eta horrezaz gainera “norberaren arrazoiak ahoz zein idatziz modu sinesgarrian adieraztea, besteen ikuspuntuak kontuan hartuta, ahoz nahiz idatziz azalduz badaude ere”; era berean, “idatzizko nahiz ahozko testu konplexuak (diskurtsoak, solasaldiak, jarraibideak, elkarrizketak, debateak...) sortu edo ulertzeko baliabideak (hala nola oharra, eskemak, mapak)” erabiltzeko trebetasunak izatea.

Jarrereri dagokienez, Gaztelaniaren arloaren helburua da “besteen iritzia eta argudioak jasotzeko jarrera izatea, aurreiritziak alde batera utzirik, eta elkarrizketa kritiko eta konstruktiboari eustea”. Aipatzen da, bestalde, “jendaurrean hitz egiteko segurtasuna”. Bi alderdiok aintzat hartzen dituzte hizkuntza formalaren eta debatearen funtsezko bereizgarriak.

Ebaluazio irizpideei dagokienez, jarraibideetan ahozko azalpenari garrantzi nabaria eman arren, debatea ere azpimarratzen dute: zenbait eginkizun norbere gain hartu beharra adierazten da, adibidez moderatzailea edo taldearen ordezkoa izatea, argudiatzearen eta besteen irizpideekiko errespetoaren garrantzia azpimarratzen da, eta hitza hartzeko txandak kontuan hartzen dira. Dirudienez, maila honetan lehenetasuna duten ahozko bi genero formalak ahozko azalpena eta debatea dira, tipologia desberdinen tratamendurako bide ematen dutelako (azalpenezko testuak, argudiozkoak, narraziozkoak, deskriptiboak, irakasgarriak...) eta arlo desberdinen edukiei eta xedei egokitzen zaizkielako. Komeni da, hortaz, etapan barrena horien mailaketa zehaztea eta eguneroko hezkuntza-praktikaren baitan sartzea.

1.2 **Ahozko genero formalak** **eta esku-hartzea ikasgelan**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzarako curriculumetan ahozko hizkuntza ageri arren, egia ere bada arlo hori oraindik orain ez dagoela behar bezala integratua. Maiz aski, programen zamak irakasleei gaina hartzen dienez beste eduki batzuei ematen diete lehenetasuna. Hori aski ez balitz, ikasgelan ahozko hizkuntzaren tratamenduak eta ebaluazioak xede hori nekezago egiten dute. Hori dela-eta, eredu zabalkundeak, Genevako Eskolarenak adibidez, irakaslan errazten du jarraibide argi eta aplikatzeko modukoak eskaintzen diren heinean.

Joaquim Dolzek eta Montserrat Vilàk (1997:5-8) adierazten dutenez, auzi honen inguruko punturik nagusienak hauexek dira: metodologia argitzea, xedeak zehaztuz eta edukiak hautatuz; “xalotasuna” saihestea eta ahozko ekoizpenen analisi sistematikoa ezartzea; ahozko diskurtsoaren eta idatzizkoaren artean egiten den erro-

.....

etikako bereizketa arbuizatea, okerra delako; ahozko hizkuntza idatzizkoaren pean nahiz alderantziz dagoela eztabaidan jartzea; irakasleriaren esku-hartzea balioestea; eta, azkenik, genero formalen aldeko apustu egitea.

Bernard Schneuwlyrekin eta beste batzuekin bat etorritik (1997:9-18), ahozko hizkuntza irakastearen funtsezko helburua da berezko ekoizpen xalotik diskurtso jasoago eta formalagora iristea. Esparru horretan esku hartzeak ikasleriaren hizkuntzarekiko jokabidea eraldatzea dakar, maila abstraktu batera jasotzen ahalegin-duz. Horretarako, ahozko genero formalak landu behar dira, zeinak transmititzen duten edukiengatik, esaten dena antolatzeke moduagatik eta horiek eskatzen dituzten hizkuntza baliabideengatik nabari baitira.

Ahozko genero formalen berariazkotasunak berekin dakar ahozko hizkera xaloa bereiztea, baina baita hizkuntza idatzia ere. Horri dagokionez, Montserrat Vilà y Josep M. Castellàk (2002:27-30) ahozko hizkuntza formalaren ezaugarri berezienak nabarmentzen dituzte. Testuinguruaren ezaugarrien gainean, horren izaera ez orokorra azpimarratzen dute, bai eta eskola barneko ikasketa ere; orobat, objektu akustikoa izatea, iraupen urrikoa, denbora errealean gertatua; elkarrekin partekatutako testuinguruaren eta norabide bakar samarreko komunikazioaren eragina. Testu ezaugarriei dagokionez, arlo formalaren nagusitasuna aipatzen dute, eta maiz bakarriketa bidezko adierazpena; testuaren izaera planifikatua eta askotan informaziozkoa, eskuarki gaiaren aldetik espezializatua; bai eta esapideak errepikatzea eta hizkera ez berbalen funtsezko presentzia. Ezaugarri linguistikoei dagokionez, segmentuaz gaindiko faktoreen funtsezko eginkizuna azpimarratzen dute; deixi elementuak, galdera eta harridura markak, analokutoak, elipsiak... maiz agertzea; eta hori guztia arauzko zuzentasuna eta hizkuntza-ren aldaera estandarren erabilera nagusitzen den testuinguruan.

Ahozko hizkuntza formala lantzeak berariazko tratamendua eskatzen du, eta gorago aipatu denez, ikasketa natural baten emaitza ez delarik eskola-erakundearen bitartekotzaren beharra du. Era berean, ikasketa hau ez da hizkuntza idatzian eginiko aurrerakuntzen lekualdatze soila, idatzizko kodea eta ahozko hizkuntza formalarena ezin baitira errealitate bakarria osatuko balute bezala ulertu. Josep M. Castellàren (Vilà et al., 2002:95-110) esanetan, ahozko hizkuntza formala idatzizkoaren hurbilean dagoela uste izan arren, ahozkoa denbora errealean gauzatzeak berak jartzen du erabateko diferentzia bi kodeen artean. Ahozko diskurtso formala, orduan, tarteko diskurtso bilakatzen da orduan, non hizkuntza idatzitik urrun-tzen diren ezaugarriak ikus baitaitezke. Horrela, bada, ahozko testu formal baten transkripzioa askotan kaotikoa dela dirudi, ezinbestean islatzen baitu denbora errealean eginiko diskurtsoa eratzeko prozesua. Prozesu horretan ezin daitezke elementu berbalak bakarrik hartu kontuan, dio gainera Castellàk, azken zentzua eraikitzeke orduan ezaugarri paraberbaiek sekulako garrantzia hartzen baitute.

Aurrekoa kontuan hartuz, Schnewlyk eta beste batzuek (1997: 9-18) komunikazio publikoko generoak eta ikasketa akademikorako balio dutenak lantzea gomentatzen dute. Bi talde horien ezaugarri nabarmenenak dira egitura konbentzionala, fikzionalizaziorako joera (eginkizun sozial bat norberaren gain hartzen den heinean) eta hizkuntza formak arau hertsien bidez markatuak izatea.

Dolzen eta Schnewlyren iritziz (2006: 107-112) ahozko hizkuntzaren curriculumak hiru baldintza bete beharko lituzke. Aurrena, ikasleak ikuspegi orokorra izan dezan lan unitate bat eskaini beharko litzaioke. Horretarako, generoak dira oinarritzko unitateak, konplexutasun aldakorreko xedeetatik abiatuz lau mailatan lan egiteko aukera ematen dutenak: testuinguruaren irudikapena, egitura diskurtsiboa, gaikako edukien irudikapena eta testualizazioa. Hurrena, kontuan hartuz etapa bakoitzean ahozko genero desberdin ugari landu beharra dagoela, generoak multzoka biltzea komeniko da, ikasturte bakoitzean multzo bakoitzeko genero bat lant dadin. Proposamen horrek, Adamen (1992) sailkapenaren barnean, baditu bere abantailak Dolzen eta Schnewlyren iritziz: sarbide desberdinak ditu, bereizkuntzaren printzipio pedagogikoaren arabera (Schnewly, 1993), erkatzeko bide ematen du, hiztunaren konexio psikologikoari arreta jartzen dio eta, gainera, ahozko hizkuntzaren helburu sozialak berariaz lantzeko beharrari erantzuten dio. Hirugarren tokian, ikasleen ahalmenak eraldatze aldera, nahitaezkoa dirudi espiral motako ikuspegi bat izateak, eta horrek berekin dakar mailaka sakontzea, gero eta konplexuagoak diren xedeak barne direla. Horren haritik, komeni da gako-dimensioak zehaztea, zeinetan eraldatzeak gauzatzen ahal diren eta etapa desberdinen artean ikuspuntu aldaketak sar daitezkeen. Hastapeneko ahalmenak aldarazi ahal izateko, Dolzek eta Schnewlyk horrela ematen diote amaiera, esku-hartzeko proposamenak eta estrategiak prestatu behar dira. Horixe da, haien ustez beti ere, sekuentzia didaktikoen baliaagarritasuna.

Dena den, bistakoa dirudi ahozko genero formalen irakaskuntzarako plangintzari mailaz maila eta sistematikoki ekin behar zaiola, genero horiek badituztelako berariazkotasunak ahozko hizkera xaloa eta hizkuntza idatzi formala ez bezalakoak. Eskola-erakundeak bere baldintzak ezarri behar ditu, beraz, berezko diskurtso arrunt eta xalotik formalera arteko jauzia gerta ahal dadin. Bestela, ikasleen presaktuntzako funtsezko alderdi bat osatzeke geldituko litzateke.

.....

I.3 Oinarrizko gaitasunak eta debatea

Genero mota bat den debatearen inguruko ezaugarriak bereziki interesgarriak dira Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan oinarrizko gaitasunak garatzeko, jarduera horrek, ikaslea mintzamenaren zailtasunei aurre egitera, bere ikuspuntua defendatzera, elkarreragin soziala izatera eta jokabide-kodeak onartzera behartzen duen neurrian.

Azken urteotan europar orientabideek gako edo oinarrizko gaitasunen aldeko lana bultzatu dute; kontzeptu honek bere baitan hartzen du eskari konplexuei erantzuteko eta eginkizun desberdinak egokiro burutzeko ahalmena. Helburua da, beraz, ikasleen baitan hainbat trebetasun, ezaguera, motibazio, balio, jarrera, emozio eta jokabide sozialak garatzea, gai izan daitezen nor bere burua gauzatzeko, gizarte-eratzeko, hiritartasun eraginkorra izateko eta lan munduan sartzeko.

Beraz, oinarrizko gaitasunen ezaugarria da jokabide pertsonalean eragina izatea, *egiten jakitearekin*, hots, ezaguerak bizitza praktikoan aplikatzearekin, identifikatzen diren heinean. Ikuspegi horrek, nor bere burua ezagutzeari inola ere muzin egiteke, garrantzia jartzen dio gizabanakoak hura bereganatzeari, haren prestakuntza era pasiboan aberastu ez ezik, jokaera ere markatzen duelako. Debateaz denaz bezainbatean, ikasleak hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasuna erabiltzeaz gainera, komunikazio paraberbaleko beste sistema batzuk ere abian jartzen ditu. Aurrekoarekin batera doaz informazioaren tratamenduari buruzko gaitasuna, gaitasun soziala eta hiritartasunaren arlokoa, ikasten ikasteko ahalmena eta norberaren autonomia eta ekimenaren garapena.

Hizkuntza bidez komunikatzeko gaitasunari dagokionez, funtsezko elementua da ezaguera eta pentsaera sozial kritikoa eraikitzeke, informazioa tratatzeko eta gai desberdinetako komunikazio baliabideak menderatzeko. Alde horretatik, ikasgelan egiten den debateari buruzko tratamendua oso tresna baliagarria izan daiteke hainbat arlotan. Hizkuntzaren ikuspegi hertsitik hartuta, debateak bide ematen du ahozko hizkuntza formala komunikazioko testuinguru erreal batean garatzeko. Era horretan, ikaslea beharturik egonen da bere diskurtsoa ongi kodetutako komunikazio egoera baten berezko erregistrora egokitzea, eta bereganatu beharko ditu jendetasunezko eta ohiturazko arau orokorrak. Horrek prestatuko du bizitza sozialean hiritar gisa modu eraginkorrean parte har dezan. Hizkuntza ahalmenen

artean, bereziki landuko dira modalizazioaren erabilera, inoren diskurtsoa berresateko teknikak, jendetasunezko arauak, kohesio mekanismoak eskuratzea...; guzti-guztiak diskurtso polifoniko formalean eragin berezia duten alderdiak.

Komunikatzeko gaitasuna, alabaina, ez da hizkuntza trebetasunak garatzera soilik mugatzen, gainera kode paraberbalak bereganatu beharko dituzte ikasleek, gero debateetan praktikan jarriko dituztenak, hala nola elementu prosodikoen modulazioa eta keinuak eta begiradak; laburbilduz, ahozko elkarreraginaren berezko mintzamoldea bereganatzea.

Komunikatzeko gaitasunak, izan ere, hizkuntza trebetasunaz gain honakoak hartzen ditu bere baitan: gaitasun soziolinguistikoa, zeinak komunikazioko egoeretara egokitzearen ardura baitu, elkarreraginaren helburua, arauak eta konbentzioak errespetatuz; gaitasun diskurtsiboa, zenbait berezitasunekin lotzen dena, hala nola, koherentzia, kohesioa eta aniztasun diskurtsiboa; eta gaitasun estrategikoa, baliabide erretorikoei eta jendetasunetzko dihoakiena. Xehetasun horiek guztiak kontuan hartu beharko dira debatea planifikatu eta berbalizatzeke garaian, interes handiko trebatze komunikatiboa baitakarte berekin.

Komunikatzeko gaitasunaz gainera, debatea egiteak aukera ematen du gaitasun metodologikoak garatzeko, esate baterako, informazioaren tratamendua eta ikasten ikasteko gaitasuna. Horieta lehenengoari dagokionez, debatea prestatzeko ikaslea gai baten gainean dokumentatu eta informazioa, komunikazio premien arabera antolatua, prozesatu behar jartzen du. Une horretan, bestalde, beharrezkoa da informazioa eskuratzeko sistema desberdinak ere erabiltzea eta, bereziki, iturrien analisia eta tratamendua, norberaren tesia indartzeko eta aurkakoaren jarrera errefusatzeko. Ikasten ikasteko gaitasunari dagokionez, debateak ikaslea erronka zehatz baten aitzinean jartzen du eta hori gainditzeko estrategia sail bat eratzerara behartzen. Horrek lana planifikatzea eskatzen du, inguruabarrei modu malguan egokituriko proiektuarekiko leialtasuna izatea, proposatutako xedeekin erkatuz emaitzak berrikustea, eta horrekin batera norberaren dohainak praktikan jartzea, hala nola iraunkortasuna, erantzukizuna, taldearekiko konpromisoa, hutssegiteak aitortzea eta horiek gainditzeko ahalmena, besteak beste.

Debatea, halaber, ikasprozesu bat da, beste gaitasun batzuk ere erabiltzea bermatzen duena, horien artean alderdi emotiboak eta pertsonartekoak. Izan ere, debatearen bilakaerak, horren prestakuntza prozesua barne, norberaren emozioak erregulatzen laguntzen du, autoestimua indartzen du eta bide ematen bestelako gaitasunak izateko, adibidez enpatia, baieztatzeke eta beste entzuteke gai izatea, elkarrizketarako, erabakiak hartzeko eta gatazkei irtenbidea emateko. Debateak, egjatan, ahozko genero formal gisa duen berariazotasun linguistikoaz gainera, ikasleak nor bere egoeraren eta taldekoaren aitzinean jartzen ditu, eta

.....

egoera horretan erakutsi beharko dute autonomia badutela, eta ekimena, sormena eta lider izateko ahalmena ere, eginkizun baten plangintza egitean, gauzatzean eta ebaluatzean.

Azkenekoz, bizikidetzarekin zerikusia duten berriazko gaitasunei dagokienez, debate generoak gaitasun soziala eta hiritartasun arlokoa sustatzen ditu, ikaslea errealitateaz bere buruari galde egitera, inguruan duen munduaz ohartaraztera eta, nolaerebait, gizartearekin konpromisoa hartzera bultzatzen duen neurrian. Debateak eztabaida errazten du eta ikasleria prestatzen elkar onartzera, hiritartasun zentzua eta jokabide demokratikoa garatuz. Debatearen berriazko formulak eta errituala ikasiz, ikasleria gizarte demokratikoaren erritoetan abiarazten du, bai eta, azken finean, prestatzen ere, hiritar eraginkor bilaka dadin.

I.4 Debatea eta testu-ezaugarriak

Hein batean bederen bat datoz (Conca et al., 2003) testu-ezaugarri oinarritzotzat egokitasuna, koherentzia eta kohesioa azpimarratzean, Ahozko genero formalen bereizitasunak direla-eta, zilegi da ohar labur bat egitea debatearen eta horren testu-ezaugarrien gainean. **Egokitasunari** dagokionez, izaera pragmatikoa duen testu-ezaugarri bat da, testua eta komunikazio-egoera kontuan hartzen dituen. Testuaren egitura eta testuingurua aztertzen ditu: igorle-hartzaileen arteko jokoak, bien kokaera testuaren barrenean, komunikazioaren tartea, denbora eta burutapena (Conca et al., 2003:5). Ildo horretan, hainbat xehetasun aipatu behar dira, hala nola, modalizazioa, lankidetzaren printzipioa eta hizkuntza aldaera.

Debatean, komunikazio polifoniko baten eskemaren aitzinean gaude, ahots bereziki kualifikatua duena, moderatzailearena, hain zuzen. Horren eginbeharra da testua ireki eta ixtea, bai eta mintzatzeko txandak ezarri eta betearaztea ere. Ahots berezia da, beraz, gainerako testu igorleena ez den maila batean diharduena. Bestalde, debeteko parte-hartzaileek txandak ari dira, batean diskurtsoaren igorle izanen dira eta bestean hartzaile, testua elkarrekin eratuz. Horretarako, H.P. Gricek formulaturiko lankidetzaren printzipioa errespetatzea ezinbestekoa da, kualitateari, kan-

titateari, garrantziari eta moduari erreparatuz, horiek adierazten baitute egiri zor zaion errespetua, eskaerari egokitzea, garrantzia duenera mugatzea eta argi eta zehatzean hitz egitea (Conca et al., 2003:12-13). Bide horretatik molda daiteke benetako komunikazioa, diskurtso paralelo mordera izan ordez. Komenigarria da, beraz, xehetasun hori kontuan izatea debatea prestatzerakoan, generoaren inguruko ikaskuntza korapilatsuenetako bat horixe baita, mintzaideari aditzea eta errefusatzea.

Testu-polifonia ez da moderatzailearen eta debatean parte hartzen dutenen arteko jokoan bukatzen. Debatearen uneren batean ikusleek parte hartu ahal izatea gora-behera, igorleen aniztasuna ausarki hazten da agintaritzaren argudioa maiz erabiltzeak dakarren testuartekotasuna kontuan hartzen bada. Alde horretatik, interesgarria da kanpoko ahotsak eranstea ez ezik, baita testualki tratatzeko modua ere.

Egokitasunaren eremuan nabarmentzen den beste xehetasun batek badu ikustekorik igorlea testuan agertzearekin. Debatean elementu modalizatzaileek zeresan handia dute, ihardespentetan txandaka parte hartzen duten ni desberdinak agerrarazten baitituzte. Arrasto pertsonalak, hala ere, diskurtsoaren helburura bideratu behar dira trebeziak, hots, besteak konbentzitzera, hori ere ikaskuntza honen xede azpimarragarria baita, dudarik gabe. Era berean, oinarritzko beste eduki bat da hizkuntza aldaera. Ikasleriak ahozko diskurtso formalera behar du ohitu, eguneroko mintzamoldea alde batera utzirik. Prozesu horretan txertatzen da, berez, jendetasunezko eta trataerako formulak, ikasleak arruntan erabiltzen ez dituztenak.

Koherentzia, berriz, izaera semantikoa duen ezaugarri testuala da, esanahia eratzera zuzendua. Gaiak arduratzen da, informazioa hautatzeaz eta prozesatzeaz, hartzen duen testu-egituraz eta partekaturiko informazioaren eta informazio berriaren arteko jokoaz (Conca et al., 2003:5). Gaiari dagokionez, funtsezko faktore semantikoa da, debatearen bilakaera osoa arautzen duen heinean. Komeni da gaiari izen sintagmaren eitea ematea, horrela, partaide guztientzat argi mugatua egonen delako. Debatearen hasieran, moderatzaileak gaia zehazki agerraraziko die, bai eta nola igaroko den ere. Horretarako, lagungarri izan daiteke gaiaren mugak galdera moduan zehaztea. Moderatzaileak, orobat, gaiak izan ditzakeen adar desberdinen berri ere emanen du eta arduratuko da debatearen bilakaera behar den ordenaz egin dadin. Partaideei, berriz, lankidetzaren printzipioak planteatutako gaira mugatzea eskatzen die, alferrikako digresioak saihestea eta ordena errespetatzea debatearen atal guztietan zehar.

Informazioaren hautaketa eta prozesua garrantzi handikoak dira debatearen prestakuntzan. Parte-hartzaile guztiek dokumentatu behar dute nor bere ikuspuntua defendatu ahal izateko. Prozesu horretan premiazkoa da informazio iturri desberdinetan sarbidea izatea eta norberaren tesia defendatzeko eta gainerako jarrerari

.....

aurre egin eta errefusatzeko egokiak diren edukiak bereiztea. Era berean, aztertu behar da besteren diskurtsoa nola testualizatzen den eta norberaren diskurtsoan argudio gisa nola sartzen den.

Alde horretatik, testualizazioak eskatzen du argudio-sekuentziak erabiltzea, eta horiekin ikasleek ohitu behar dute. Mintzatzeko lehendabiziko txandan, argudiozko diskurtsoak ongi egituratua behar du izan. Debatean zehar, ordea, garrantzi handikoa izanen da errefusa, mintzaideari entzutea eskatzen duen sekuentzia testuala dena, bai eta diskurtsoaren errepikapena, aurkako argudioak azaltzeari ekin aurretik. Alabaina, debatean bestelako egitura batzuk ere ager daitezke, bereziki azalpena eta narrazioa, besteak konbentzitzeko engranajearen atal gisa erabiliak.

Testu-koherentziak argudio-sekuentziaz gainera testu-egitura berezia asimilatzea eskatzen du, makrosekuentzia bezalako bat, zeinean moderatzaileak eta parte-hartzaileak txanda eta betekizun batzuk esleiturik baitituzte, errespetatu beharrekoak. Horrela, moderatzaileak testua irekitzen du, zuzentzen eta ixten; partaideek hasieran beren ikuspuntua defendatzen dute, eztabaidan parte hartzen eta beren azken hautematea zehazten. Une horretan, debatearen barne-antolaketak ideien arteko errespetuzko trukea sustatu behar du eta partaide guztien onura. Debatean testu-koherentzia izanen bada, nahitaezkoa da guztien lankidetzara eraginkorra, moderatzailearen esanetara jarriz, proposatutako gaiari ekinez, aurkariaren adierazpenari erreparatuz, eta azken batean debatea ongi antolatua izan dadin, ahal den neurrian, bizia eta xaloa. Prestakuntza aurreko prozesuak ez luke ito behar komunikazioaren naturaltasuna, besteak konbentzitzeko interesagatik eta gizabanakoa besteengana irekitzeagatik nabarmentzen dena. Bereziki, ikus-entzuleen interesaren mesedetan, moderatzailea informazio berriaren eta informazio partekatua arteko konbinazio orekatua bermatzen ahaleginduko da, horrek bide emanen baitu ikus-entzuleek debatea uler dezaten eta, beste alde batetik, diskurtso polifonikoak aurrera egin dezan.

Kohesioa sintaxi arloko testu-ezaugarri bat da, diskurtsoa osatzen duten unitateen egituraketa bermatzen duena. Bereziki, erreferentzia eta loturako mekanismoak nabarmentzen dira (Conca et al, 2003:131-210). Erreferentziatzat ulertzen da testuaren bi elementuren arteko identitate edo zentzuko loturak ezartzea. Prozesu hori elementu gramatikaletik edo lexikosemantikotik abiatuta gauzatzen da. Lehendabizikoen artean aipatzekoak dira deixi-elementuak eta forikoak. Bigarrenen artean, nabarmentasun berezia dute sinonimiak, antonimiak, barnean hartzeko erlazioak eta elkartzeko eremuak.

Ahozko genero formala denez gero, debatean ikaslea aski korapilatsua den eginkizun bati aurre egin behar dio: alde batetik, hainbat xehetasun zaindu beharrean da, esate baterako besteekiko trataera eta aldaera lexikoak eta gramatikalak errefer-

rentzien jokoan; beste aldetik, ezin izanen du esaten ari dena esan ahala berrikusi, ahozko testua baita, *zuzenean* eratzen dena, aldez aurretik presta badaiteke ere.

Garrantzi handikoa da, halaber, ikasleak lotura-mekanismoak erabiltzen trebatzea. Baliabide horiek esaldien lotura logikoa bermatzen dute eta igorlearen ikuspuntua edo ikuspegia argitzen. Era berean, interes handikoak dira besteren diskurtsoa berriro eratzeko, debatearen alderdi erabakigarria baita beste arrazoibideak ezabatzeke premiazko urrats gisa.

Laburbilduz, ikasleekin arretaz landu behar dira debatearen testu-ezaugarrien bereizgarri nabarmenenak. Aldez aurreko analisia lagungarri izanen da, dudarik gabe, ahozko genero formalaren bereizgarriez jabetzeko. Hala ere, badirudi hori, bere horretan soilik, ez dela aski. Komeniko da ikasleekin orain arte aipatutako alderdiak urratsez urrats lantzea, debatearen hondarreko testualizazioa prestatze aldera.

LOEk agintzen du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolaketa hezkuntza komunari eta aniztasunarekiko printzipioei jarraikiz egin dadila. Hurrengo puntuak zehazten dira ikasleriaren heterogeneitateari aurre egiteko neurriak, eta horien artean curriculumaren egokitzapena. Bistan denez, irakaslanaren esperientziak erakusten du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen ahalmenak, interesak, inplikazioa eta errendimendua elkarrengandik zenbat urruntzen diren. Horrek estrategia ugari jarri beharra dakar berekin, ikasle bakoitzak aurrera egin dezan eta, bidenabar, ikasgelaren jarduera egokiro kudeatzerik izan dadin.

Oinarrizko gaitasunak garatzeko debatea arunt egokia dela ez dago zertan errepikatu. Izan ere, ikasle guztiek, edozein dela ere haien adimena eta une batera arte erdietsiriko gaitasuna, badute ahalmena, proposatzen den bezalako sekuentzia baten bitartez ikaskideen arteko elkarreragina izateko. Dena den, jarraibide erabil-


.....

garri batzuk seinala daitezke sekuentzia hori ikasleriaren errealitatera egokitzeko. Hori baino lehen, komeni da gaitasun maila desberdineko ikasleen arteko elkarre-ragina onuragarria dela jakitera ematea, ikasle abantailatuak besteentzat eredugarri izan daitezkeen heinean.

Alde batetik, eredu horiekin loturik hain zuzen, komeni da sekuentzia hori errefe-rentzia argitzat balio dezakeen debatea aztertzearekin hastea. Telebistaz grabatuta-ko debatea izan, nahiz beste ikasleek edo irakasleek klase osoaren aitzinean gauzatutako eztabaida izan, ondo gogoan edukitzea komeni da eztabaidaren gaiak eta mailak ahalbidetu behar dutela, nolana ere, ikasle guztien inplikazioa. Jakina, aukeratzen den ereduak lagungarri behar du izan ikasle anitzek telebistan ikusitako badaezpadako debateen eredu ezkorrrak ezabatzeko.

Beste alde batetik, hizkuntza gaitasuna garatzea sekuentzia horren oinarritzko xedea bada ere, horrek ez du proposatzen den bezalako diskurtso-kohesioarekin loturiko gogoeta metalinguistikoaren maila nahitaez berekin ekartzen. Era berean, ez da beharrezkoa ere argudio-tekniketan teorikoki sakontzea. Gai horri buruz, irakasleak ikasleen argudiozko ahaleginaren gidari beharko du izan, tesia finkatzeko zenbait estrategia proposatuz. Izan ere, argudiatzeko teknika horien ezaguera teo-rikoak, berez, ez dirudi lehentasunezko xedea denik.

Egiantan, dagokion atalean proposatzen denez, genero honekin zerikusia duten gai-tasunak zehazterakoan maila hagitz desberdinak ageri dira. Edonola ere, komeniko da ikasleek delako debatea moderatzaile batek zuzenduriko gai baten inguruko solasaldi formaltzat hartzea, eta, testualizazioan, axola handiko faktoreak kontuan edukitzea, hala nola jendetasuna, ni lehenengo pertsonaren eta solaskidearen ize-nordainak neurritz aipatzea, besteen iritziak eta generoaren argudio-oinarria entzu-tea eta birformulatzea. Aldez aurretik, ikasleek barneratu beharko dute dokumentazioa, noraezko urratsa baita tesiaren defentsa prestatu eta ihardespe-nek aurreikusteko.



2.

**Sekuentzia didaktikoaren eredua
eta horren aplikazioa debatean**

2.1 Sekuentzia hezkuntza- plangintzaren baliabide gisa

Montserrat Vilàk (2002: 127-137) sekuentzia-ereduak, diskurtso-generoaren ekoizpenari bideraturikoak, dituen dohainak nabarmentzen ditu. Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan frogatutako eraginaz gainera, proposamen horrek benetan suspertzen du ikasleriaren gogo hainbat alderdietan: mintzairaren egiazko egoeraren arazo bati irtenbidea eman nahi dio, ikaskideen eta irakasleen arteko elkarre-ragina jartzen du jokoan; eta berbalizatu beharreko eginkizun batzuk proposatzen ditu. Eredu horri esker eginkizunetan oinarrituriko programazio ugari sortarazi dira, sekuentzia didaktikoetan oinarrituz prozedura eta kontzeptu-edukiak kontuan har daitezzen, eta hori eginkizunetan edo proiektuetan antolatutako langintzaren aldaera bat da (Camps, 1994; Dolz eta Schneuwly, 2006).

Dolzek eta Schneuwlyk (2006: 113-144) sekuentzia didaktikoa definitzerakoan zera dela diote: klaseko proiektu baten esparruan hizkuntza jarduera baten inguruan sistematikoki antolatutako eskolaldi multzo bat. Baieztapen horretatik gogoeta interesgarri batzuk ondorioztatzen dira. Aurrena, plangintzaren izaera sistematikoa azpimarratzea. Inprobisazioz aritu beharrean funtsezkoa da antolaketa lana, nahiz eta zenbaitetan horrela gauzatzen den ahozko hizkuntzaren tratamendua. Hurrena, dena hizkuntza jardueraren inguruan dabilela baieztatzea; eta horretan datza ahozko gene-roen garrantzia, arreta hitzezko ekoizpenaren gainean fokalizatzen den heinean. Azkenik, klaseko proiektuarekin loturik, definizio horretatik sekuentzia bere tes-tuinguruan ikustearen garrantzia ondorioztatzea. Horrek, azken batean, koherentzia orokorra eskatzen du jorratutako alderdiaren eta programazio osoaren artean.

Dolzek eta Schneuwlyk (2006: 113) adierazten dutenez, proposamen horren oina-rria sistematikotasuna da, osotasun koherenteduna delako, bai eta egokigarritasuna ere, ikasleriaren mailen araberrako sistema modularra plantzeatzen duelako. Eredu honek, bestalde, kontuan hartzen ditu komunikazioaren egoerak, irakaskuntzaren xede bihurtu nahi dituenak. Generoetan sailkatutako lanaren oinarria komunikazio-an datza, noski, baina baita diskurtsoaren egituraketan ere. Prozesu honetan egile-ek (2006:114-115) munta handiko bi oztopo hauteman dituzte. Alde batetik, ez da egokia adierazteko eta egituratzeko uneak errotik bereiztea. Horrek eragozten baitu adierazpidearen eta gogoetaren arteko loturei behar bezalako arreta jartzea. Beste alde batetik, egituraketan maiz ez dira xehetasun garrantzitsu batzuk kontuan hartzen, demagun, komunikazio egoeraekiko egokitzapena bezalakoak.

Horren ondorioz, Dolzen eta Schneuwlyren aburuz (2006:115-116), eredu sekuentzialaren lehendabiziko printzipioa da komunikazioa eta egituraketa sistematikoki artikulatzea, eta hizkuntza jardura egituraketaren abiapuntu eta xede izan dadin lortzea. Bigarren printzipioa da mintzaira irakas-ikaskuntzaren xede autonomo bihurtzea.

Sekuentzia didaktikoaren abiapuntua beti izan ohi da hasierako egoera bat, zeinean komunikazio-proiektua aurkezten baita. Hastapeneko une horretan bi alderdi nabarmen daitezke: taldean egin beharreko hizkuntza jardura baten inguruko proiektu bat aurkezten da eta ikasleei horri buruzko informazioa ematen zaie, batez ere landu beharko duten ekoizpenari buruzkoa. Era horretan, ongi zehaztua gelditzen dira komunikazioaren egoera eta irakas-ikaskuntzaren xedea. Une horretantxe proposatzen da hasierako ekoizpenari ekiteko jardura, zeinean ikasleek erakusten baitute irakasgaiaz zer pentsatzen duten. Beraz, axola handiko unea da prestakuntzaren ebaluaziorako: orduantxe jarriko dira agerian puntu sendoak eta landu beharreko hobekuntza elementuak.

Sekuentzia-ereduan, ikasleriaren abiapuntua zein den hauteman ondoren, modulu edo lantegi sail bat zehaztuko da azken ekoizpenari begira hobetzen ahal diren alderdi desberdinak lantze aldera. Egileek (2006:125-126), haatik, halabeharrezkotzat dute xehetasun batzuk. Ikasleek, aurrena, komunikazio egoera nolakoa den irudikatu beharko dute: horrela ohartuko dira helburuaz, hartzailaz eta igorle gisa duten estatutuaz genero horri dagokionean. Bigarrenik, edukiak prestatu eta ezagutu beharko dituzte eta, horregatik, horiekin landu beharko da dokumentazio prozesua. Hirugarrenik, jardura antolatu beharko dute, plana ezagutuz eta, orobat, izan daitezkeen elkarreaginak. Azkenik, testualizatu beharko dute, baliabide linguistikoez eta paraberbalez baliatuz, hala nola prosodiaz eta gorputzaren inplikazioaz.

Lantegietan jarduerak nahitaezkoak edo hautazkoak izan daitezke, gaian sakontzeko pentsatuak nahiz errefortzu moduan. Modulu sistema bat da, multzo osoarekiko ikusmoldeak eta bere barneko eta kanpoko koherentziak mugatzen dutena. Lantegiarekiko era askotako ikuspegiak daude: sarritan ikasleak erreferentzia testuen aitzinean jartzeko balio du; batzuetan, komunikazio egoeraren inguruan kontzientzia harrarazi nahi zaie; beste batzuetan, metahizkuntza erabiltzera bideratzen zaie. Era horretan, lantegia ahozko testuak aztertzeko eta ikuskatzeko esparrua da. Izan daitezke ahozko testu egiazkoak, interesa dutenak, ez sobera luzeak; baina testu egokituak ere asma daitezke, bai eta alderdi zehatz bat lantzeko testu programatuak moldatu ere.

Testuinguru horretan, interesgarria da dokumentuak grabatu eta entzutea: osorik entzuteak erreferentzia-gaia argitzeko bide eman eta ikaskuntza garatzen du imitazioz edo kutsatuz; zati bat entzutea ere lagungarria da, nola eratu edo nola gauza-

.....

tu diren ezagutzeko. Halaber, esperientziatik abiatuz betiere, fitxak erabiltzeak ikasleari mintzabidea balioesten laguntzen dio. Jardueran berean, alabaina, ez dira erabil behar, nahasmendua ekarriko bailukete. Aldez aurretik prestatzen ahal dira edo ikasleekin batera eratzen. Azken ekoizpena prestatzeko ere balio dute.

Horri dagokionez, Dolzek eta Schneuwlyk (2006:141-143) sekuentzia didaktikoa-
ren gailurra dela uste dute, non aplikatzen baitira komunikazio jarduera egiazkoa-
ren inguruan landutako ikaskuntza guztiak. Maiz, gainera, azken ekoizpena
egiaztapeneko ebaluazio bilakatzen da. Ebaluazioa eta azken ekoizpena elkarrekin
ongi egokitzen direla dirudi, komunikazio xede berbera baitute. Haatik, adierazga-
rria da ebaluazioak, guztiarekin ere, komunikazio-proiektua bestelakotzen duela.
Prozesua objetibatze aldera, on da ikasleekin oharren orriaz mintzatzea, hor ageri
baitira hizkuntza jardueraren inguruan landutako funtsezko jarraibideak. Orri hori
bera erabiliko da hasierako ekoizpenarekin alderatuta sumaturiko aurrerapenez
ikasleekin hitz egiteko. Beste alde batetik, hautemate desorekaturik izan ez dadin,
Dolzek eta Schneuwlyk proposatzen dute gauzatutako hizkuntza-jardueran denbo-
ra baten buruan sakontzea, idatzi diren ohar oinarrizkoak berreskuratuz. Horrela,
ahozko testua klasean ekoiztitzeko diskurtso anizkuneren objektu bilakatzen da.

Hortaz, Vicent Salvadorrek eta Isabel Ríosek Dolzen eta Schneuwlyren (2006) libu-
rari eginiko aitzinsolasean adierazten dutenez, Genevako Unibertsitateko irakasle-
ek, sekuentzia didaktikoa-
ren bidez, era sistematikoan antolatutako jarduerak sail bat
garatu dute, bi helbururekin: komunikazio-xedea lortzea eta entrenamendua erraz-
tea ekoizpena kokatzen den generoan, lan proiektu baten barrenean, zeinean hala
irakaslea nola ikaslea lankidetzan ari baitira komunikazio-trebetasunak hobetzearren.

2.2 Sekuentziaren eskema eta xedeak kurtsoka

ZATIA	GAITASUNAK	XEDEAK	JARDUERAK	MATERIALA
Egoeran jartzea	Gaitasun linguistikoa, diskurtsiboa, soziala eta metodologikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debate generoa identifikatzea ■ Aldez aurreko ezaguerak aktibatzea ■ Generoarekin loturiko puntu sendoak eta hobetu beharreko arloak balioestea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Grabatutako debate bat ikuskatzea ■ Debate bat ekoiztea ■ Prozesuaren balioespena 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Grabatutako debatea ■ Jarraipen eta balioespenerako orriak
I. modulua Antolaketa-alderdiak	Gaitasun linguistikoa, soziala eta metodologikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debaterako gai egoki bat hautatzea ■ Debatearen antolaketaz gogoeta egitea ■ Taldeak antolatu eta bakarka egin beharreko lanak banatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gai buruzko bakarkako eta taldekako gogoeta egitea eta gaia aukeratzea ■ Moderatzaileak izan beharreko ezaugarri buruzko gogoeta egitea eta moderatzailea hautatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ilkasleen orriak (bakarkako edo taldearenak)

Jarraitzen du

.....

ZATIA	GAITASUNAK	XEDEAK	JARDUERAK	MATERIALA
2. modulua Dokumentazioa eta argudiobidea	Gaitasun metodologikoa, linguistikoa eta soziala.	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa bilatzea eta lantzea ■ Informazioaz baliatzea tesia defendatzeko edo debatea aurkezteko ■ Tesia defendatzeko ahozko diskurtso labur bat prestatzea, eskema bat atxikiz 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Moderatzailea hautatzea eta bere diskurtsoa prestatzea ■ Informazioa bilatzea ■ Diskurtsoa argudiatzeko oinarriak ■ Moderatzailearen eta parte-hartzaileen hasierako diskurtsoaren testualizazioa 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Ikasleen orriak
3. modulua Elkarreragina debatean	Gaitasun soziala eta linguistikoa	<ul style="list-style-type: none"> ■ Modalizazioari buruzko gogoeta egitea eta diskurtsoan duen erabilera arautzea ■ Mintzaideari entzutea eta errefusatzean haren diskurtsoa birformulatzea ■ Kohesio diskurtsiboaren mekanismoak ezagutzea eta erabiltzea ■ Elementu paraberbalak ezagutzea eta erabiltzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Elementu modalizatzaileak eta jendetasunezkoak identifikatu eta arautzea ■ Entzutea, birformulatzea eta errefusa praktikatzeta ■ Kohesio mekanismoak identifikatu eta eranstea ■ Kode paraberbala identifikatu eta erabiltzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Lan orriak ■ Grabaketako materiala (hautazkoa)
Azken ekoizpena				

Sekuentzia hau Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat programatu da, nahiz eta maila bakoitzean eta talde bakoitzean ikasleen beharretara egokitu behar den. Bistakoa da DBHko 4. mailako ikasleria xedeen gailurrera iristeko gai dela. Alabaina, guztiak lortu beharko lituzkete gutxieneko batzuk, kurtso batekoak izan zein besteak.

Lehendabiziko xedea, **debatearen generoa identifikatzea**, ikasle guztientzako oinarritzko xedea da. Hala ere, identifikaziorako erabili den irizpideak maila desberdinak onartzen ditu, ondorengo eskeman ageri bezala:

Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Debatea moderatzaile baten eta solaskide batzuen arteko gai bati buruzko eztabaida batekin uztartzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debatea gai bati buruz egituraturiko eztabaida batekin uztartzea, moderatzaile baten esanetara 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debatea gai bati buruzko argudiozko diskurtso polifoniko batekin identifikatzea, moderatzaile batek zuzendu eta parte-hartzaileek onartutako egitura itxi baten arabera

Ondorengo bi xede hauek, aurretiko ezaguerak aktibatzea, alde batetik, eta generoaren inguruko puntu sendoak eta hobetu beharreko arloak balioestea bestetik, ikasle guztiak dituzte, baina horien zehaztapena kasu bakoitzaren heldutasun mailaren mende egonen da.

I. moduluaurren aurreneko xedea ere, **debaterako gai egoki bat hautatzea**, alegia, ikasle guztien xedea da. Hala eta guztiz ere, prozesuaren kontzientzia hiru mailatan neur daiteke:

Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gai interesgarri bat hautatzea, eztabaida arrazoitua izateko bide eman dezakeena 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gai interesgarri bat hautatzea, eztabaida arrazoitua izateko eta, gainera, dokumentatzeko eta argudiatzeko ahalmena hobetzeko bide eman dezakeena 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Gai interesgarri bat hautatzea, eztabaida arrazoitua izateko eta, gainera, dokumentatzeko eta argudiatzeko ahalmena hobetzeko bide eman dezakeena, bai eta, gizakiarentzat interes orokorreko puntuekin lotzeko ere

.....

Lehendabiziko moduluaren bigarren xedeari, **debatearen antolaketaz gogoeta egitea** izenekoari dagokionez, ikasleak ohartu beharko dira zein izan ohi diren generoaren antolaketa-zati nagusiak. Hala ere, xede hori zehaztean zenbait maila bereizteko bidea ematen da.

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Debatearen egitura bost zatitan bereizitako sekuentziarekin uztartzea: aurkezpena, hasierako txanda, eztabaida, azken txanda eta itxiera 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debatearen egitura aipatutako sekuentziarekin uztartzea eta solaskideari entzutean oinarritutako elkarreragin prozesuaren garrantzia aitortzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debatearen egitura aipatutako antolaketarekin uztartzea, elkarreragin diskurtsiboaren garrantzia aitortzea eta eztabaidaren prozesua elkarrizketa bidez aberastasun pertsonalera bideratutako egitura gisa balioestea

Hirugarren xedeak **taldeak antolatu eta bakarka egin beharreko lanak banatzea** lortu nahi du. Ikasle guztien eskura dagoen helburua da, eta horien heldutasuna pertsonarik egokienaren hautaketa bermatzeko interesean nabaritutako da, bai eta prozesuan izanen duten lankidetzan ere.

Bigarren moduluko lehendabiziko xedea **informazioa bilatzea eta lantzea** da. Dokumentazio prozesua, goian aipatu den bezala, funtsezkoa da debatea prestatzeko. Alabaina, xede hori betetzeko ere maila desberdinak ezartzen ahal dira, ondorengo taulan adierazten denez:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Gaiari buruzko informazioa bilatzea eta tesiarekiko egokitasunaren arabera hautatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa iturri fidagarrietan bilatzea eta tesiarekiko egokia den ala ez bereiztea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Informazioa iturri aproposen eta fidagarrietan bilatzea eta horren egokitasunaren arabera balioestea

Bigarren xedea da **informazioaz baliatzea tesia defendatzeko edo debatea aurkezteko**. Jakina, kasu honetan ere estandar desberdinak ezar daitezke ikasle-riaren ahalmenen arabera, hurrengo taulan azaldu bezala:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> Informazioa argudiobide gisa eranstea. (Moderatzailearen kasuan, informazioa eranstea debatea aurkezteko) 	<ul style="list-style-type: none"> Informazioa egokitzea tesiaren defentsarako argudiobide desberdinak eraikitzeko, aurkako argudioen ihardespena aurreikusiz. (Moderatzailearen kasuan, informazioa gaia prestatzeko erabiltzea, horren interesa adieraziz) 	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentazioa manipulatzeko tesiaren defentsan era desberdinetako argudioak formulatzeko, aurkako argudioak ezeztatzeko aurretiaz prestatuz. (Moderatzailearen kasuan informazioa manipulatzeko gaia aurkezteko, debataren alderdirik nagusienak azpimarratuz)

Hirugarren xedea da **tesia defendatzeko ahozko diskurtso labur bat prestatzea, aldez aurreko eskema baten laguntzaz**. Dolzek eta Schnewlyk “testualizazioa” deitzen duten puntuari dagokio. Kontua da, une horretan, hiru bat minutuko diskurtso labur bat prestatzea, horrela parte-hartzaile bakoitzak bere abiapuntua finka dezan debatan. Eskemaren egitura, hiru zatik osatua, hagitx konbentzionala da. Ikasleen heldutasuna nabarmenduko da eskemaz jabetzeko eta besteak konbentzitzeko estrategia bihurtzeko duen ahalmenean, betiere bere tesiaren defentsan. Horri buruz, hiru maila konbentzional hauek seinala daitezke:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> Tesiaren inguruko hasierako ikuspuntua modu arrazoizkoan finkatzea, hiru zatik osatutako eskemaren arabera 	<ul style="list-style-type: none"> Argudio desberdinak erabiliz, gaiari buruzko ikuspuntua defendatzea hiru zatitan prestatutako diskurtsoaren bidez 	<ul style="list-style-type: none"> Gaiari buruzko hasierako ikuspuntua era arrazoituari berbalizatzea, argudio desberdinak modu estrategikoan jarriak, erabiliz, eta diskurtso zauli eta natural baten bidez

.....

Hirugarren moduluak elkarreragin diskurtsiboari jartzen dio arreta eta bere lehen-dabiziko xedea da, **modalizazioari buruzko gogoeta egitea eta diskurtsioan duen erabilera arautzea**. Puntu honetan ere hiru maila nabarmentzen ahal dira, ondorengo taulan ikus daitekeenez:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Diskurtsioaren elementu pertsonalez ohartzea, ikuspegi pertsonala neurritz erabiliz, solaskidea tartean sartuz eta jendetasunezko arauak betez 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Modalizazioaz ohartzea (<i>ni</i>-aren presentziaz), solaskidea tartean sartzeaz eta jendetasunaz, besteak konbentzitzeko testuinguru batean 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Modalizazioaren garrantziaz ohartzea (igorlearen presentziaz), hartzailea tartekatzeaz eta jendetasunezko araez, eta horren erabilera arautzea, besteak konbentzitzeko testuinguru bateko diskurtsio-estrategiak diren aldetik

Bigarren xedea da **solaskideari entzutea eta errefusatzekoan haren diskurtsioa birformulatzea**. Debatearen giltzarri den elementu bat azpimarratzen du xede honek, elkarrekiko solasa. Partaideei aditu gabe ezinezkoa da debatea. Ildo horretatik, entzun delako froga besteren iritzien birformulazioan datza, zeina, jeneralean, desadostasunaren adierazpena egin baino lehen ageri baita. Oinarrizko mailan, ikasleak gai izan behar du inoren iritzia bere hitzetan errepikatzeke, norberaren ikuspuntua azaldu aitzineko urrats gisa, baina besteren diskurtsioa manipulatzeke gaitasunak maila desberdinak izan ditzake, taula honetan ikus daitekeenez:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Besteren iritzia kontuan hartzea desadostasuna errespetuz adieraztean eta errefusatzean 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Besteren diskurtsioa errespetuz erabiltzea defendatu nahi den tesia indartze aldera 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Besteren diskurtsioa errespetuz desmuntatzea, puntu ahulak azpimarratuz, defendatu nahi den tesia indartze aldera

Hirugarren xedea da **kohesio diskurtsiboaren mekanismoak ezagutzea eta erabiltzea**. Horren bidez ikasleei ohartarazi nahi zaie baliabide horiek diskurtsoren egituratze eta logikarako duten garrantziaz. Hurrengo proposamenak hiru errendimendu-maila ezartzen ditu:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Lokailu logikoak eta ordenakoak ezagutu eta erabiltzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Lokailu logikoak eta ordenakoak ezagutu eta erabiltzea argudiobidea indartze aldera 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Kohesioaren mekanismoak identifikatu eta jakinaren gainean erabiltzea argudiatzeko estrategiaren testuinguruan

Hirugarren moduluko azken xedea da **elementu paraberbalak ezagutzea eta erabiltzea debatean**: keinuak, begiradak eta faktore prosodikoak. Honako mailaketa proposatu da:

Oinarrizko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
<ul style="list-style-type: none"> ■ Keinuak eta faktore prosodikoak ezagutzea eta egokiro erabiltzea debatean 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debateko elementu paraberbalak ezagutzea eta argudiobidea indartzeko erabiltzea 	<ul style="list-style-type: none"> ■ Debateko elementu paraberbalak ezagutzea eta jakinaren gainean erabiltzea argudiobideko estrategia baten testuinguruan



.....

Aurreko guztia kontuan hartuz, eta orientatzeko bide bat baizik ez dela jakinik, ondorengo sekuentziazioa proposatzen da kurtsoka, ohartaraziz xedeen hautaketa ikasturteari baino gehiago sekuentzia landuko duten taldearen profil konkretuari dagokiola. Hasierako xedeari loturik, debatearen inguruko aurretiko ezaguerak eguneratzea planteatzen da:

HASIERA	DEBATEAREN GENEROA IDENTIFIKATZEA	Mailak
1.	■ Debatea gai bati buruzko eztabaida batekin identifikatzea, moderatzaile baten eta mintzaide batzuen artean	1
2.	■ Debatea egitura finko batekin ere lotzea (irekiera, hasierako txanda, eztabaida, azken txanda eta itxiera)	2
3.	■ Debatean aitortzea, halaber, eztabaidaren izaera argudiozkoa eta besteak konbentzitzekoa dela: argudioa, entzutea eta errefusatzea	3, 4

Antolaketa alderdiei, lehenengo moduluan jorratu zirenei, dagokienez, xede hauek ezarri dira:

1.1	Debaterako gai egokia hautatzea	Mailak
1.1.1	■ Eztabaida arrazoitua izateko bide emanen duen gai interesgarri bat aukeratzea	1, 2
1.1.2	■ Eztabaida arrazoitua izateko eta, gainera, dokumentazioaren eta argudiobidearen ahalmena hobetzeko gai interesgarri bat hautatzea	3
1.1.3	■ Aurreko xedeak ez ezik ikasleen pentsamenduan abstrakzioa eta gizakiaren arazo orokorreko lotura ere lortzeko bide emanen duen gaia hautatzea	4

1.2	Debatearen antolaketaz gogoeta egitea	Mailak
1.2.1	■ Debatea moderatzaile batek zuzenduriko solasaldi batekin identifikatzea	1
1.2.2	■ Debatea bost zatitan zehazturiko egitura batekin lotzea (aurkezpena, hasierako txanda, eztabaida, azken txanda, itxiera)	2
1.2.3	■ Debatea aipatu egiturarekin eta partaideen arteko benetako solasarekin uztartzea	3
1.2.4	■ Debatea aipatu alderdiekin lotzea eta egiazko elkarrizketa balioestea, aberastasun pertsonala eta besteengana irekitzea den aldetik	4

Tesiaren dokumentazioari eta argudiobideari dagokienez, zeinak sekuentziaren bigarren moduluan landu baitira, hauek dira xedeak:

2.1	Informazioa bilatu eta lantzea	Mailak
2.1.1	■ Debatearen gaiari buruzko informazioa bilatu eta hautatzea, tesiarekiko egokitasuna kontuan hartuz	1, 2
2.1.2	■ Informazioa iturri egokietan bilatzea eta tesiarekiko egokitasuna balioestea	3
2.1.3	■ Informazioa iturri fidagarrienetan bilatzea eta tesia defendatzeko eta errefusa egiteko egokitasunaren arabera balioestea	4

2.2	Informazioa tesia defendatzeko edo debatearen aurkezpena egiteko erabiltzea	Mailak
2.2.1	■ Informazioa argudiorako edo debatearen aurkezpenerako baliabide gisa eranstea	1, 2
2.2.2	■ Informazioa argudiorako baliabide gisa erabiltzea, solaskideen ihardespina aurreikusiz (edo debatea prestatu eta horren interesa arrazoitzea)	3
2.2.3	■ Informazioa argudiorako baliabide gisa erabiltzea, ihardespina aurreikusiz eta argudio-estrategiak aldatuz (edo aurkezpena prestatu eta argudio desberdinekin horren interesa arrazoitzea)	4

.....

2.3	Tesiaren aldeko ahozko diskurtso laburra prestatzea	Mailak
2.3.1	■ Tesiaren gainean hasierako ikuspuntua finkatzea, hiru zatik osatutako egiturari segituz (sarrera, bilakaera eta bukaera)	1, 2
2.3.2	■ Hasierako ikuspuntua argudio desberdinekin finkatzea, adierazitako eskema errespetatuz	3
2.3.3	■ Hasierako ikuspuntua trebetasunez defendatzea, adierazitako eskemari jarraikiz eta tesiari egokituriko argudioak estrategikoki hautatuz	4

Azkenik, sekuentziaren hirugarren moduluan planteatu den debate barneko elkar-reraginaz denaz bezainbatean, ondorengo xedeak proposatzen dira:

3.1	Modalizazioaren gainean gogoeta egin eta debategan izan beharreko erabilera arautzea	Mailak
3.1.1	■ Igorleari buruzko erreferentziak neurritz atxikitzea eta solaskidearekin nahiz moderatzailearekin jendetasuneko arauak erabiltzea	1, 2
3.1.2	■ Modalizazioaz ohartaraztea eta diskurtsoari eranstea, besteak konbentzitzeko helburuarekin	3
3.1.3	■ Besteak konbentzitzeko modalizazioak duen dohaina aprobetxatzea tesiaren argudioa indartu eta besteen ideiak ezeztatzeko	4

3.2	Solaskideari entzutea eta diskurtsoa birformulatzea errefusean	Mailak
3.2.1	■ Desadostasuna adieraztean besteren iritzia kontuan izatea	1, 2
3.2.2	■ Besteren diskurtsoa norberaren tesia indartzeko eta kontrakoa errefusatzeko erabiltzea, adostasun partzialaren estrategiaz baliatuz	3
3.2.3	■ Besteren diskurtsoaren ahuleziak agerian jartzea norberaren tesia indartze aldera	4

3.3 Kohesio diskurtsiboaren mekanismoak ezagutu eta erabiltzea		Mailak
3.3.1	■ Oinarrizko lokailu logikoak eta ordenakoak identifikatu eta erabiltzea	1, 2
3.3.2	■ Lokailu logikoak eta ordenakoak argudioa indartzeko aprobetxatzea	3
3.3.3	■ Lotzeko eta erreferentziako mekanismoak argudioko diskurtsoa indartzeko aprobetxatzea	4

3.4 Elementu paraberbalak ezagutu eta erabiltzea		Mailak
3.4.1	■ Debatean keinuak eta elementu prosodikoak ezagutu eta egokiro erabiltzea	1, 2
3.4.2	■ Argudio-diskurtsoa elementu paraberbalen bitartez indartzea	3
3.4.3	■ Mintzaira paraberbalaren dohainak argudioko diskurtsoa indartzeko era egokian aprobetxatzea, testuinguru generikoa kontuan hartuta	4

.....

2.3 Ereduaren bilakaera

2.3.1 EGOERAN JARTZEA

Dolzek eta Schneuwlyk (2006:118-124) proposatutako eredu sekuentzian egoran jartzearena funtsezko erreferentea da komunikazio egoera eta irakas-ikas-kuntzaren xedea ikasleei aurkezteko. Lehenengo une horretan, ikasleek genero testualaren gainean egiten den ideia agerrarazten dute proposaturiko jardueren bitartez. Irakasleak, bere aldetik, puntu sendoak neurtzen ahal ditu eta, orobat, debatearen inguruan ikasleek dituzten eskasia nabarmenenak.

Aurrena, ikasleentzat oinarritzko bi xede proposatzen dira: aztertu behar den generoa ezagutzeko eta sekuentzia didaktikoaren esanahia interpretatzeko. Bietako lehenari dagokionez, bi jarduerak proposatzen dira, aurretiaz grabatutako debate baten analisia egitea eta ereduaren arabeko beste bat ekoiztea. Bigarren xedearekin loturik, hirugarren jarduerak bat eranstean, sekuentziaren egitura modularra asimilatzea zuzendua, batez ere.

I. jarduerak

Grabatutako debate baten analisia

Ikasleek ezagutzen dituzte alde aurretik debate generoaren inguruko xehetasunak, baina sekuentzia didaktikoa hasi aitzin komentatu da ezaguerak eguneratzea. Generoaren ideia hori, dudarik gabe, eskola eremu aurretiko esperientzietatik dator. Dena dela, gerta daiteke debateaz duten ikuspegian zeresana izatea telebista programetan oinarrituriko irudiak, zeinetan generoaren hezkuntza-dohainak erabat desitxuraturik ageri baitira: hitza hartzeko txandak eta pertsonak ez errespetatzea, argudioen funtsik eza, debatearen xederako hitz desegokiak erabiltzea, koherentzia diskurtsiboak galtzea... Jakina, ez dirudi gomendagarria aipatutako adibidea bezalako bat hasierako jarduerak horretarako aukeratzea. Zer hautatuko irakasleek esku dago, alderdi batzuk kontuan edukitzekoak direla ukatu gabe. Aurrena, debateak osoa beharko luke izan, baina neurriko iraupenaren aldetik;

era berean, ikasleen interesa piztu lezakeen gai batean jarri beharko luke arreta; orobat, debate nolabait eredugarria aukeratzea komeniko litzateke, antolaketa, argudioaren koherentzia, partaideen elkarreragina eta hizkuntzaren erabilpen ego-
kia kontuan hartuko dituen. Horrela, ondorengo balioespenak bide emanen du generoaren alderdirik adierazgarrienak nabarmentzeko.

Debatea ikusi aurretik, zentzuzkoa ematen du jardueran lortu nahi den helburuaz ikasleekin hitz egiteak eta, orobat, debatearen balioespen orria banatzeak eta sor daitezkeen zalantzak argitzeko laburki komentatzeak.

DEBATEAREN BALIOESPEN ORRIA



1. Komunikazio alderdi oinarrizkoak



- Izenda itzazu **parte-hartzaileak**, horien aurkezpenean ezaugarri garrantzitsuenak adieraziz (lanbidea edo prestakuntza maila):
 - a. 1. parte-hartzailea: :.....
 - b. 2. parte-hartzailea: :.....
 - c. 3. parte-hartzailea: :.....
 - d. 4. parte-hartzailea: :.....
 - e. 5. parte-hartzailea: :.....
- Adieraz ezazu nor den **moderatzailea** eta komentatu profesional ezaguna den ala ez: :.....
- Idatz ezazu zein **kanaletan** eman zuten programa eta **emanaldiaren data**: :.....
- Jar ezazu debatearen **gaia** zein den (adibidez, botoa emateko eskubidea 16 urtekoentzat): :.....
- Laburbil ezazu debatean sortutako **eztabaida** galdera batekin (adibidez, 16 urtekoek botoa ematerik izan beharko lukete?): :.....
- Balora ezazu **gaur-gaurko gaia** ote den ala ez. Erantzuna arrazoituz: :.....

2. Debatearen antolaketa



- Azal itzazu debatearen atalak. Horretarako, osa ezazu ondoko taula, debatearen **atalak** adieraziz, bai eta betekizuna eta arduraduna nor izanen den ere:



Debatearen atalak	Betekizuna	Arduraduna
<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>	<p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p> <p>.....</p>

3. Moderatzailearen betekizuna

.....

- Adieraz itzazu moderatzaileak debatean dituen **betekizunak**:
:.....

4. Elkarreragin komunikatiboa

.....

- Balora ezazu ea parte-hartzaileek elkarri eta moderatzaileari **entzun dioten**:
:.....
- Arrazoituz ea parte-hartzaileek besteak kontuan izan ote dituzten, beren ikuspuntua azaltzerakoan:
:.....
- Gogora ezazu eta idatzi parte-hartzaileek beren ikuspuntua azaltzeko orduan arestian aipatu dena kontuan hartu dutela frogatzen duen **esapidere**n bat:
:.....
- Esan ezazu ea parte-hartzaileek **hitz egiteko txandak** eta debateko gaiari buruz moderatzaileak eginiko oharrak bete dituzten:
:.....

5. Debateko hizkera

.....

- Adieraz ezazu zein den parte-hartzaileek eta moderatzaileak darabilten **tra-taera**. Eman arrazoiak egokia den ala ez esateko:
:.....
- Adieraz ezazu ea **teknizismoak** edo **kode herts**i bateko hitzak, jendea-
rentzat ulerkaitez direnak, erabiltzen diren:
:.....
- Idatz ezazu diskurtsoa antolatzeko eta argudiatzeko erabilitako **esapide**
ren bat:
:.....

.....

Debatea ikusi ondoren, on litzateke ikasleek bikoteka erantzunen baliote galde sortari. Era horretan, lankidetzaz errazten da eta, bidenabar, gaian sakontzea lortzen da. Jarraian, irakasleak gidalaria egin beharko luke guztiak ados jartze aldera. Eta horixe da, hain zuzen ere, oinarritzko xehetasunak nabarmentzeko unea, adibidez, debatearen antolaketaz, parte-hartzaileen eginkizunaz, haien arteko elkarre-ragiaz eta hizkuntza formalaz. Kontuan hartu behar da ikuspuntu horiek guztiak txertatu beharko liratekeela egiten den hurrengo debatean. Dena den, ez da zertan adierazi behar debatea nola eraman behar den; helburua da taldeak generoari buruzko gogoeta egitea, proposatutako ereduarekin erkatuta lehendik dituen eza-guerak eguneratzeko. Geroago, sekuentziaren modulu desberdinetan generoaren alderdirik nabariak banan-banan landuko dira.

2. jarduera

Debate xalo eta natural bat prestatzea, burutzea eta baliioestea

Dolzen eta Schneuwlyren (2006:120-124) ereduak hasierako ekoizpena giltzarri elementutzat jotzen du sekuentzia osoa arautzeko, ikasprozesuaren abiapuntu gisa hartzen delako. Honako honetan, debate baten prestatzea planteatzen da I. jardueran ereduari buruzko iruzkina egin ondotik. Horrela, hasierako ekoizpenean kontuan har daitezke alde zuzenetik iruzkindutako alderdiak.

Hala eta guztiz ere, komeniko litzateke une horretan irakasleak espresuki esku ez hartzea, taldea gehiegizko zuzendaritzapean ari ez dadin. Horrek naturaltasuna kenduko bailioke partaidetzari eta itxuralda litzake sekuentzian barrena kontuan hartu beharreko eskasiak.

Debatea sekuentziaren hasierako jarduera gisa garatu nahi denez gero, komeni da prestakuntzaldia azkartzea, jarduera osoa saio bakarrean burutu ahal izateko moduan. Prestakuntza erraztearren, irakasleak aurrez banatzen ahal die ikasleei honelako orri bana:

DEBATEAREN PRESTALANA



1. Gaia eta eztabaida



- Debateak azterketak izanen ditu eztabaidagai, ikasleria ebaluatzeko bide gisa. (Irakasleak beste gai bat, ikasleriaren interesa sor dezakeena proposa dezake, egoki baderitzo).
- Eztabaida galdera honetan laburbil daiteke: azterketak, ikasleak ebaluatzeko sistema gisa, kendu beharko lirateke?

2. Argudiobidea



- Debatearen prestalana errazteko, ikasle bakoitzak adierazi behar du zein den bere ikuspuntua eta horren aldeko hiru argudio desberdin idatzi.
- Debatearen gaiaz dudan tesia edo ikuspegia honako hau da: :.....
- Horren aldeko argudioak:
 1. argudioa: :.....
 2. argudioa: :.....
 3. argudioa: :.....

3. Moderatzailea hautatzea



- Proposa ezazu ikaskideen arteko izen bat moderatzaile gisa aritzeko eta arrazoitu zure hautaketa. (Pertsonarik egokiena ahal bait lasterren aukeratzea da kontua, klaseko irizpidearen arabera. Komeni da alde aurretik zehaztea zernolako dohainak beharko dituen izan).

4. Parte-hartzaileak hautatzea



- Debaterako beharrezkoa izanen litzateke bost boluntarioren partaidetza. Adierazi boluntario izan nahi duzun. (Irakasleak aurretiaz arakatu beharko lituzke ikuspuntu desberdinak daudela bermatzeko, horrela debatea biziagoa izanen baita. Nolanahi ere, hasierako proba denez gero, hobe da prozesua azkar burutzea).



Ikasleak, hortaz, klasera fitxa behar bezala beteta etorriko dira. Horrela, debatearen antolaketa azkarrago joan daiteke. Delako antolaketak aurreko jardueran aipaturiko oinarrizko alderdiekin bat etorri beharko luke. Hastapeneko proba delarik, lortu nahi den helburua da ikasleriaren abiapuntua ebaluatzea. Horren kariaz, moderatzaileaz eta parte-hartzaileez gainera, klaseko gainerakoien inplikazioa sustatzea komeniko da, balioespena talde osoari egin ahal dakion.

Debatea, sobera luzea izan behar ez duelarik, burutuz geroz, ebaluazioa egitea komeni da. Horretarako, ondoren paratu den balioespen-orria proposatzen da, lehen momentuan kontuan izan beharreko funtsezko alderdiak bilduko dituen.

HASIERAKO EKOIZPENAREN BALIOESPEN-ORRIA



1. Debatearen antolaketa



- Debateek izan ohi dituzten atalak errespetatu direla uste duzu? Arrazoitu zeure erantzuna
:.....
- Debatea antzeztea mesedegarri izan da geroko bilakaerarako? Arrazoitu zeure erantzuna
:.....

2. Eztabaidaren bilakaera



- Gaia ongi planteatu dela uste duzu?
:.....
- Gaiari debate osoan zehar eutsi zaio ala noizbehinka parte-hartzaileek gai horretatik urrundu dira?
:.....
- Zer iruditu zaizkizu eztabaidan erabilitako argudioak?
:.....
- Debatean parte hartu dutenek gaiari buruzko ezaguera frogatu dutela uste duzu?
:.....

3. Parte-hartzaileen arteko elkarreragina



- Moderatzaileak ezarritako txandak errespetatu dira?
:.....



- Parte-hartzaileek elkarri entzun diote? Hitza hartzean aipatu dute beste parte-hartzaileek debatean barna esandako zerbait?
:.....
- Hitza hartzean jendetasunezko formularik erabili dute?
:.....

4. Parte-hartzaileen hizkera

- Debatean erabilitako erregistroa egokia iruditu zaizu?
:.....
- Egin gogoeta hitzartzei buruz: ongi antolatuak daude?, lokailuez ongi josiak al daude?, hizlariak solaskideak kontuan izaten dituzte?
:.....

Debatearen balioespena aurrena talde txikitik egin beharko litzateke, ikasleen arteko iruzkinak errazte aldera. Hurrena, irakaslea lagun dutela, ondorioak bate-ratuko dituzte. Horrela, debatearen grabaketak lana lasaiago egiteko aukera ematen du, ondorioak ateratzeko erabat premiazkoa ez bada ere.

3. jarduera

Moduluen aurkezpena

Egoeran jartze horren azken jarduera denez gero, ikasleei sekuentzia honen oinarriko xedea azaldu nahi zaie, hain zuzen ere debate bat egitearena, prestaketa prozesuaren gaineko gogoeta sail batetik abiatuz. Argi gelditu behar du, beraz, sekuentzia osatzen duten moduluen jarduera guztien asmoa ikaslearen gaitasun diskurtsiboa sustatzea dela, aurreko jardueren oharpenetan oinarrituz.

Modulu konkretuak aurkeztu aitzin komeri da ikasleekin hitz egitea abiapuntuaren gainean eta proposatutako xedea lortzeko landu beharreko beste xehetasunen gainean. Beraz, ondoko orria eskaintzen da iruzkinak errazago egin daitezten.

LEHENTASUNAK BALIOESTEKO ORRIA

Kontuan izanik hasierako ekoizpena:

- Adierazi zein diren debatearen bilakaeran ikusi dituzun alderdirik positiboena, atal hauetan:

Antolaketa	Argudioa	Elkarreragina	Hizkera
.....
.....
.....
.....

- Adierazi zein liratekeen aldatu beharreko alderdiak azken ekoizpenari begira:

Antolaketa	Argudioa	Elkarreragina	Hizkera
.....
.....
.....
.....

Orri honetako iruzkina kontuan hartuz, ikasleei sekuentziaren bilakaera modularra planteatuko zaie, hobetu beharreko puntuak aurreikusiriko jarduerekin lotzen ahalginduz.

.....

2.3.2

I. modulua - ANTOLAKETA ALDERDIAK

I. jarduera

Gaia hautatzea

Debateak arrakasta izanen badu gaia hautatzea funtsezko faktorea da, noski. Ikasleen inplikazioa ez da erraz erdiesten eta horregatik komeniko da haien lehentasunak gogoan edukitzea eztabaida planteatzerakoan. Alde horretatik, Dolzek eta Schneuwlyk (2006: 46-49) azpimarratzen dutenez, debateko gaiak interesgarria behar du izan ikasleentzat, baina, aldi berean, aukera eman behar du eztabaida izan dadin, zeinean iritzi kontrajarriak defenda daitezkeen. Gainera, gaiak balio behar du ikasleen baitan prestakuntza hobetzeko. Aholkatzen dute, halaber, estrategia motibatzailerik gisa, ikasleek ezagutzen duten esparru bateko gai bat aukeratzea. Ez da komeni, haatik, gaia biziegia izatea, ikaskuntzan beharrezkoa den urruntasun emotiborako kaltegarria baita. Laburbilduz, adituentzako begibistakoa da gai horrek alderdi desberdinak dituela: bat, psikologikoa (motibazioa beharrezkoa da); beste bat, kognitiboa (eztabaidan nolabaiteko konplexutasuna izateko bidea eman behar du), beste bat, soziala (gaiak hein bateko dentsitate soziala behar du izan, polemika bat planteatu behar du, erronka bat) eta azkenik, alderdi didaktikoa (ikaskuntza segurtatu behar du prozesuan).

Horrela, bada, irakasleen eginbeharra ez da erraza: ikasleen iradokizunak aintzat hartzeko jarrera erakutsi behar dute, baina, aldi berean, gaiak iragazi behar dituzte eta hautaketa zuhurki orientatu. Dena dela, komeni da oroitzea sekuentzia hori ikasprozesu gisa planteatzen dela, eta hor ez dagoela hutsegitea, prestakuntzako eragile gisa, baztertzetik.

Jarraian ematen den ikasleentzako orriaren bidez, taldekide guztiak inplikatu nahi dira, lehendabizi gogoeta pertsonala, idatzizkoa, egin dezatela eskatuz. Era horretan, irakasleak ikasle bakoitzaren orria izanen du eskutan, eta hori modulua hasierako unea ebaluatzeko tresna izanen du. Bakarkako orri hori ikasleek gero binaka komentatu beharko dute. Ondoren, irakasleak zuzenduko du ados jartzeko lana. Gaiaren hautaketak gehien erabakiaren isla beharko du izan, bistan denez, baina irakasleak nolabaiteko eragina izan dezake baldin eta, maiz gertatzen den bezala, proposamen batzuek era bateko nahiz besteko arazoak sortarazten badituzte; adibidez, sobera manikeoak izatea, debatea desorekatzeko neurrian, edo ezaguera maila handiegia eskatzea, batean lor ezin daitekeena, horrela azalekokeriak baizik ezin baitira argudiatu.

Arazoari buruzko ikuspegi argia hasi-hasieratik erdiesteko asmoz, behin eta berriz aipatzen da gaia izen sintagma baten bidez identifika dadila. Horrek auzia mugatze-
ra behartzen du ikaslea. Horretarako, halaber, galdera bat egitea proposatzen da,
debatearen ardatz gisa. Izan ere, gai baten inguruan eztabaida hagitz desberdinak
antola daitezke, aukeratutako ikuspegiaren arabera. Hori dela-eta, galdera bat gau-
zatzeak biziki errazten du eztabaidaren mugetan erabili beharreko terminoen iden-
tifikazioa. Galderari dagokionez, hala eta guztiz ere, zilegi izan beharko lirateke
baiezko erantzunak, ezezkoak eta are tartekoak ere. Ez legoke ongi planteatua,
hortaz, erantzun onargarri bat eta bakarra izanen lukeen debatea.

Beste alde batetik, gaia prestatzeko prozesuan, komeni da ikasleek, lehendabiziko
jardueratik hasita, eztabaidan jarrera bat defenditzeak dakarzkien zailtasunak plan-
teatzea. Oraindik ez da abagune egokia informazioa bilatzen hasteko ez eta argu-
dio-estrategia lantzeko; bai, ordea, eztabaidarako proposatutako gaien
bideragarritasuna planteatzeko. Horren kariaz, ikasleei eskatzen zaie ezen, gaia eta
galdera zehaztearekin batera, aukera bat hauta dezatela eta defenda zenbait argu-
dioren bidez. Horrela, baztertu beharko lirateke zailtasun gehiegi sortaraz ditzai-
keten gaiak, nola argudioen eremuan hala ikuspuntua aukeratzeko orduan.

IKASLEENTZAKO ORRIA



- Idatz itzazu zeure izen-deiturak: :.....
- Adieraz ezazu eztabaidatu nahiko zenukeen gaia. Izen sintagma baten bidez adierazi. Adibidez: gazteen bozkatzeko eskubidea.
:.....
- Saia zaitetz debatearen mugak galdera batekin zehazten, eztabaida zein baldintzapetan gauzatuko den argi gera dadin. Adibidez, aurreko gaiari buruz, galdera honakoa litzateke: “Hamabost urtetik goitiko gazteei bozkatzeko eskubidea onartu beharko litzaielike?”
:.....
- Gaia eta ikuspegia honelako jarduera baterako egokiak diren balioesteko, saia zaitetz aldeko bi argudio eta aurkako beste bi jartzen. Esate baterako, aldeko argudio gisa aipa daiteke erabaki politiko askok eragina dutela gazteengan, eta horregatik gazteriak horri buruzko iritzia emateko eskubidea beharko lukeela izan; gainera, gazteek botoa emanen balute, beren burua gehiago sartuko lukete bitzta sozialean eta politikoan. Aurkako argudioak izan lirateke gazte horiek adingabeak direla, eta horregatik ezin zaiela hiritar helduei dagokien eskubidea aitortu; gainera, bozkatzeko eskubidea honelako kasuetan ez dagoela inon aitortua.



Aldeko argudioak

1. argudioa: :.....
2. argudioa: :.....

Aurkako argudioak

1. argudioa: :.....
2. argudioa: :.....

- Ba ote tarteko jarrerarik? Arrazoitu zure erantzuna.
:.....

2. jarduera

Taldeak eta moderatzailea hautatzea

Lehen modulu honetako bigarren jarduerak lehenengo jardueraren antolaketaren ildotik doa. Oraingoan moderatzailea hautatzea egokitzen da eta klasea taldeka banatzea, horietatik aterako baitira debatean jokatuko duten ordezkariak. Moderatzailea hautatzerakoan aldez aurretik gogoeta egin beharra dago debatean izanen duen eginbeharrari buruz. Horretarako, hiru ariketa proposatzen dira: moderatzaileari dagozkion eginbeharren mailaz mailako sailkapena eskatzea, aukera ematea ikasleek beren eginkizunak gehi ditzaten, aldez aurreko zerrendan eginkizunen bat falta dela antzematen badute, eta debatearen faseetan moderatzailearen eginbeharra zehaztea. Puntu horretan, ikasleek eginkizun horretarako pertsonarik egokiena proposatuko dutela espero da. Garrantzi handiko unea da, izan ere, debateak ongi funtzionatuko badu moderatzaileak halako dohain batzuk izan beharko dituelako (irizpide argia, mintzo erraza, autoritatea) eta horien mende egonen da eztabaidaren bilakaera egokia.

Lan taldeak eratzerakoan, talde bakoitzaren berariazkotasunari erreparatuz, irakasleak zuzenduko du hautaketa, ahal bait egokiena izan dadin, baina, kontuan izanik betiere klasekoen iritzia, ikasleen motibazioarako lagungarri delako. Alde horretatik, taldeen berdintasunik ezak desabantaila nabariak sor ditzake. Edonola ere, ez da bistatik galdu behar sekuentzia ikasprozesu bat dela, eta hortik beste okasioetarako ondorioak atera beharko direla.

IKASLEENTZAKO ORRIA. TALDEAK ETA MODERATZAILEA HAUTATZEA

Izen-deiturak: :.....

1. Moderatzaileak eginbehar nabaria du debatearen bilakaeran. Moderatzaileari dagozkion eginkizunen artean, hauta itzazu garrantzizkoenak iruditzen zaizkizun hiruak, gurutze bat jarriz ezkerreko laukitxoan:

- Parte-hartzaile guztiak hitz egin dezaten ahalegintzea.
- Debatea zentratzea, gaiaren xehetasun nabarmenei heldu.
- Parte-hartzaileen denbora kontrolatzea, beren arteko desorekak eragotziz.
- Hitz egiteko txandak berdintasunez banatzea.
- Moduagatik edo gaiagatik desegokiak diren hitzartzeak moztea.
- Hitzartzeak errepikakor bihurtzen direnean beste alderdi batera aldatzea.
- Debatearen bukaeran solaskideei beren ondorioak azal ditzaten gonbidatzea.
- Debateko edozein unetan jendeari mintzatzeko erraztasunak ematea.
- Puntu gatazkitsuak hautematea eta horietaz eztabaida ordenatua bultzatzea.
- Bere ikuspegia modu arrazoituan azaltzea.

2. Erants ezazu aipatu ez den beste eginkizunen bat:

:.....

3. Debatearen zati bakoitza eta moderatzaileari dagokion eginbeharra lot itzazu gezi banarekin:

aurkezpena	Parte-hartzaileen azken ondorioen azalpena arautzea, denbora mugatuz
gaiaren azalpena	Debatean jorraturiko alderdi nagusienak nabarmentzea
bilakaera	Debatea zentratzea, gaia eta xehetasunak, zeinen gainean argudiatuko baita, argiro aurkeztuz
ondorioak	Parte-hartzaile guztiak hasierako ikuspuntua denbora mugatu eta parekoan azal dezaten kontrolatzea
itxiera	Parte-hartzaile guztiak hitz egin dezaten eta gaiaren xehetasun desberdinen bilakaera bermatzea

.....

4. Aurrekoa kontuan hartuz, proposa ezazu eginkizun hori bete lezakeen ikaskide baten izena
:.....
5. Lan taldeak eratzeari dagokionez, markatu gurutze batekin horretarako egokiena iruditzen zaizun iritzia:

- Nahiago dut irakasleak bere iritzira aukeratzea taldeak.
- Taldeak osatzeko hoberena zozketa egitea litzatekela iruditzen zait.
- Alfabetoaren hurrenkeran eratu beharko lirateke.
- Ene ustez ikasleek geure kabuz eratu beharko genituzke taldeak.
- Beste aukera bat (adierazi zein)
:.....

3. jarduera

Ordezkariek hautatzea

Taldeak eraturik, komeni da debaterako ordezkaria hautatzea. Horretarako, pertsona horrek izan behar dituen ezaugarrien gainean gogoeta egitea proposatuko da. Ikasleei espreski adierazten zaie bozeramaileak zernolako dohainak beharko dituen izan, klasean izan lezakeen ospeari erreparatu gabe.

Halaber, prozesuaren puntu horretan ohartarazi nahi zaie erabakiak modu arrazoituan hartzeaz, gero taldeak egokiena deritzona adosteko. Era horretan, berebat, taldearen kohesioa sustatu nahi da. Komeni da irakasleak talde bakoitzaren orria artxibatzea, prozesuaren oharrak osatzearren. Aurreko kasuetan bezalaxe, prozesuan gehiegi esku ez hartzeaz gainera, taldeen erabakiak errespetatu beharko lituzke, gero zailtasunak izateko arriskua sortzen bada ere.

TALDEAREN ORRIA. ORDEZKARIA HAUTATZEA

- Zernolako dohainak izan behar ditu taldearen ordezkariak? Adostu itzazue hiru ezaugarri garrantzitsuenak.
- Ordezkarria hautatzeko prozesua modu batean edo gehiagotan gauzatu daiteke: taldekide guztiek adostuta, edo zozketa bidez, edo irakasleak izendatuta... Zein iruditzen zaizue egokiago? Zergatik?
- Eztabaida ezazue taldean auzi horri buruz eta jarri zaitezte ados. Idatzi hautaturiko pertsonaren izena eta adierazi zein den erabili duzuen prozedura.

2.3.3

2. modulua - DOKUMENTAZIOA ETA ARGUDIOBIDEA

I. jarduera

Moderatzailearen lana

Moderatzailearen eginbeharra, aipatu den bezala, funtsezkoa da debatearen bilakera-eran. Horregatik, hain zuzen, bere hitzartzea arreta handiz prestatu beharko du. On litzateke moderatzaileak beste ikaskide baten laguntza izanen balu, premia izanez gero haren ordeztu aritzeko. Era horretan, debatearen antolakuntza arriskuan ez jartzeaz gainera, ikuspegi osoagoa bermatzen da. Aurreneko jarduera horretan, moderatzaileak eta haren laguntzaileak ondoren erantsitako fitxa bete beharko dute. Bi ikaskide horiek 2. eta 3. jardueretan, lankidetzan aritzen ahal dira taldeekin dokumentazioa eta argudiobideak lantzen, horrela aukera izanen dute I. jardueran burururiko plangintza osatzeko. Azkenik, 4. jardueran, testualizazioan zentratu dagoen horretan, moderatzaileak eta haren laguntzaileak aurkezpen eskema osatuko dute eta probasaioak eginen dituzte ezarritako hobekuntza irizpideak aplikatuz.

IKASLEAREN ORRIA. MODERATZAILEAREN ALDEZ AURREKO LANA

I. Idatz ezazu laukian moderatzaileak debaterako zati bakoitzean izan behar duen eginkizuna:

Debate zatiak	Moderatzailearen eginkizunak
Aurkezpena
Hasierako azalpenak egiteko txanda
Debatearen bilakaera
Ondorioak ateratzeko txanda
Itxiera

2. Presta ezazu aurkezpenaren eskema bat. Horretarako bete ondoko plantilla:

Sarrerako agurra
.....

Gaiaren aurkezpena
.....

Datu aipagarrien kontestualizazioa

- Galderaren nondik norakoak:
- Eztabaidaren xedea:
- Polemikak ukitzen dituenak:

Gatazka-gune nagusiak

-
-
-
-

Debaterako gomendioak
.....

Hasierako hitzartze txandaren sarrera
.....

3. Komenigarria da oroitaztea ezen, debatearen bilakaeran moderatzaileak entzule-ikusleei hitz egin dezaten eskatzen ahal diela eta parte-hartzaileen ihar-despenak bultzatzen ahal dituela.

4. Itxierari dagokionez, ondorengo eskemaren antzeko bati jarrai dakiok:

Eskerrak eman parte-hartzaileei

Aldeko argudioen laburpena egin

Aurkako argudioen laburpena egin

Azken agurra

.....

I. jarduera
Dokumentatze lana

Debatea ongi joanen bada, nahitaezkoa da ikasleek beren gaia gogoz prestatzea. Bestela, funtsik gabeko esaldiak errepikatu besterik ez dute eginen eta eztabaida batere interesik gabekoa izan daiteke. Hori dela-eta, klasean egiten den lana eta etxean egiten dena bat eginez, komeni da planteatu den auzia iker dezaten, jarraipen-orrian adierazten denaren arabera.

JARRAIPEN-ORRIA. DOKUMENTATZE LANA

- Taldekideek debatean defendatu behar duten jarrera eztabaidatuko dute eta irakasleari jakinaraziko, eztabaida askotarikoa izan dadin bermatzeko. Zurigunean adieraz ezazue zein izanen den debatean defendatu beharreko tesia.
- Taldeak gaiari buruz eskura dagoen informazioa bildu beharko du. Horretarako, zenbait iturri kontsultatuko du eta hortik abiatuz osatuko du hurrengo taula. Komeni da iturri nabarmenena bakarrik adieraztea:

Auziaren alderdiak	Laburpen txikia	Erreferentzia dokumentala
Gaia
Gaiaren garrantzia
Aldeko argudioak
Aurkako argudioak
Bestelako ikuspuntuak

.....

2. jarduera

Argudioen bilakaera

Taldeek argudiatze lana egin beharra dute, debatearen prestaketan funtsezko elementuetako bat baita. Horretarako, zerrenda bat izanen dute eskura, argudiorik ohikoenak ezagutzeko aukera izan dezaten. Lan-orrian sartzen da Perelmannek eta Olbrechs-Tytecakak (2006) proposatutako ereduaren egokitzapen bat. Helburua da ikasleek ezagun ditzatela argudiobide erabilienak eta hartzailea manipulatzeko estrategiak. Adibide konkretu batean aplikatzea aurre-urratsa da defendatu nahi den tesirako argudiorik egokienak ohartuki prestatu ahal izateko. Proposatutako jardueri bukaera ematen zaie ariketa bat eginez, zeinean debateko aurkariaren ihardespenak aurreikusi nahi diren. Ihardespenei aurrea hartzea du helburu, defentsarako estrategia prestatuz.

TALDEENTZAKO LAN-ORRIA. ARGUDIOBIDEA

- Irakur ezazue arretaz ondorengo argudioen sailkapena. Gidalagun izanen zaizue hurrengo ariketak ebazteko.

Argudioen sailkapena

- 1. Errealitateko egituraren oinarrituriko argudioak, esperientzia eta gauzen arteko lotura ezagunak erreferentziatzat hartzen dituztenak**
 - Autoritate-argudioa: pertsona baten edo entitate baten prestigioan oinarritzen da. Adibidea: ez erretzea komeni da, sendagileek horrela gomendatzen dutelako.
 - Kausa-ondorioaren edo onuraren argudioa: egitate batzuen eta horien ondorioen arteko loturan oinarritzen da. Adibidea: ariketa egitea komeni zaizu, sasoi hobean egonen baitzara.
- 2. Antzekotasun erlazioetan oinarrituriko argudioak:** argudio horiek agerrarazi nahi dituzte begiratu batean somatzen ez ditugun alderdien arteko loturak. Moltzo horren barrenean bi mota hauek nabari dira:
 - Adibideekin adierazten den argudioa: tesia kasu konkretu batean frogatzen da. Adibidea: historian zehar emakumearen eginkizun publikoa salbuespenezko kasuetan baizik ez da planteatu; horrela gertatu zen Ingalaterrako eta Espainiako Isabel izeneko erreginek nork bere tronua eskuratu zutenean.

- Antzekotasunaren argudioa: tesia frogatzen da beste egoera batekiko antzekotasunak aurkituz. Adibidea: mendebaldeko herrialde boteret-suek ez lukete amore eman behar Iranen aitzinean; hori, aliatuek 1939an Hitlerren aurka bezala jokatzeari litzateke.

3. Erlazio ia logikoetan oinarrituriko argudioak: sistema logiko eta matematikako erlazioak bezalatsukoetara jotzen dute. Sasi-logikoak dira, izan ere, errefusagarriak direlako. Multzo horretan argudio mota hauek aipa daitezke:

- Kontraesanekoa ez den argudioa: asiarrek arroza ausarki jaten bide dute, beraz, hortik ondorioztatzen da txinatarrak zereal horren kontsumitzaile handiak direla.
- Probabilitatearen argudioa: erromatar zubiek eraikin berriek baino hobeki pairatzen dituzte eguraldiaren erasoak, beraz ez dago zertan kezkatu nire herriko erromatar zubiaz.

4. Mota batzuetako argudioekin loturiko gezurrak :

- “In dictione” motako gezurrak: hizkuntza-jokoaren mende daude. Era honetakoak izan daitezke:
 - a. Ironia: esaten denaren kontrakoa adierazten da. Adibidea: udal talde honen politika hagitx egokia denez gero, ez dugu proposamenik bat ere eginen.
 - b. Preterizioa: beste baterako utziko dela esan arren, azkenean dena azaltzen da. Adibidea: ez naiz orain gobernu taldea kritikatzeko hasiko, arlo guztietan porrot egin badu ere, baina iritsiko da momentua.
- “Extra dictione” motako gezurrak: argudiatuak datuen erabileraren mende daude.
 - a. (“Ad hominem”) motako eraso pertsonala. Aurkaria gaitzesten da. Adibidea: hautagaiak nola erakutsiko dit niri abertzaletasuna zer den Vietnamgo hartan behar zenean bere herrialdea defendatu ez bazuen.
 - b. Errukiaz baliatzea (“ad misericordiam”). Gupida sortaraztean datza. Adibidea: ezin daitezke pertsona baten itxaropideak zapuztu, bere helburua lortu nahian hainbeste ahalegindu bada.
 - c. Sasi-autoritateaz baliatzea (“ad verecundiam”). Autoritate argudioa bidegabeki manipulatzeko. Adibidea: San Agustinek zioen bezala “maita ezazu eta egin nahi duzuna”, beraz egin ezazu beti gogoak ematen dizuna.
 - d. Botere-abusuan oinarrituriko argudioa (“ad baculum”). Hartzailerearen beldurra manipulatzeko oinarritzen da. Adibidea: krisialdi honetan, soldata igoerak direla-eta espero dut nire enpresa inork ere arriskuan ez jartzeko.
 - e. Gehiegizko orokortzea. Aurkeztu diren egitateetatik arrazoirik gabeko ondorioak ateratzea litzateke. Adibidea: eremu honetako laborantzako ekoizpena estimatua da oso, beraz, piper hauek merkatuko hoberenak dira.

- Aurreko sailkapena kontuan harturik, lot itzazue erabilitako argudioak taulako ereduekin. Saia zaitezte, gero, argudio bakoitza kontraargudio batekin ezeztatzen:

1. argudioa	Udako egun hauetan zeure osasuna hobetu nahi baduzu, segi aire girotua 18 gradutan jartzen eta eztarriak eskertuko dizu.
Izena	
Kontraargudioa	

2. argudioa	Oliba olioak kontsumitzea aholkatzen dute eta ez bestelako hazkurriak, Espainiako oliba olioaren ekoizleen elkarteak dioen bezala.
Izena	
Kontraargudioa	

3. argudioa	Enpresen erabaki estrategikoak krisialdietan dira hartu beharrekoak. Horixe gertatu zen “La Gavilla” irin fabrikarekin, bere ekoizpena dibertsifikatzea erabaki zuela merkatuko egoera berrietara egokitzearren.
Izena	
Kontraargudioa	

4. argudioa	Era horretako delitugileen berrizkatura ez da handia, horregatik ez dago zertan beldur izan preso hori kartzelatik ateratzeak ekar litzakeen ondorioengatik.
Izena	
Kontraargudioa	

5. argudioa	Lanpostu hau lortzeko lana gogotik egin dut, prestaketa gogorra izan dut luzaroan: espezializatu naiz, ingelesa hobeki ikasi dut; gainera, larri nabil diru aldetik. Beraz, lan hau ongi merezia dudala uste dut.
Izena	
Kontraargudioa	

- Aurreko jarduera burutu ondoren, tesia defendatzeko mota desberdineko argudioak zehazten saia zaitezte:

Norberaren tesia	
1. argudioa	
2. argudioa	
3. argudioa	

- Aurkarien arrazoibideak aurreikustea inportantea da. Horregatik komeni da zerrenda bat prestatzea, kontrako hiru argudio behintzat hartzen dituen eta, gero, dagokion ihardespena erredaktatzea. Hori guztia talde osoarekin hitz behar da.

Aurkako 1. argudioa	
Errefusa	
Aurkako 2. argudioa	
Errefusa	
Aurkako 3. argudioa	
Errefusa	

.....

Testualizazioa: estrategia diskurtsiboak

Taldeek ordezkariari lagundu behar diote hasierako hitzartzearen prestakuntzan. Pentsatzekoa da debateari hasiera ematen zaiola parte-hartzaileen lehen-dabiziko txandarekin, moderatzaileak sarrerakoa egin eta gero. Une horretan, abiapuntuko jarrera finkatu behar dute denbora tarte mugatuan eta etenik egin gabe. Arrazoi horregatik, aurkezpena, bizpahiru minutukoa, kontu pixka batekin prestatu behar da. Ikasleei aurkezten zaien eskema, komenentziaren arabera alda badaiteke ere, erraza denez oso erabilgarria da. Eskema osatu eta gero, ordezkari bakoitzak beste kideen aurrean bere hitzartzearen probasaioak egin beharko ditu. Era berean, jarraibideak banatuko dira hitzartzeak denon lankidetzarekin hobetzeko. Hurrengo moduluan ahozko azalpenaren alderdi linguistikoen eta paraberbalen hobekuntzan eragiten duten alderdi batzuk landuko dira.

TALDEENTZAKO LAN-ORRIA. TESTUALIZAZIOA

- Presta ezazue hasierako hitzaldia eskema hau osatuz:

a. Sarrera: gaiaren eta defendatuko den tesiaren aurkezpena

.....

b. Argudiatze oinarrizkoa

I. Lehen argudioa:

II. Bigarren argudioa:

III. Hirugarren argudioa:

c. Behin-behineko ondorioa

.....

.....

- Taldearen ordezkariari lagundu iezaiozue bere hitzaldia entzunez eta ondorengo alderdien hobekuntza proposatuz:

Alderdiak	Irizpideak	Bai	Gutxi	Deus ez
Egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Bere ikuspuntua solaskideei errespetuz hitz eginez zehazten du? • Denborari buruz moderatzaileak egin adierazpenak kontuan hartzen ditu? • Egoera komunikatiboari dagokion hizkera zuzen eta egokian mintzatzen da? 			
Koherentzia	<ul style="list-style-type: none"> • Argiro azaltzen ditu gaia eta bere ikuspuntua? • Defendatu nahi duen tesira doitzen ditu argudioak? • Argudio batzuk beste batzuekin ongi lotzen ditu? 			
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> • Diskurtsoa antolatzeko lokailurik badarabil? • Kausa eta ondorioaren arteko erlazioak adierazteko lokailurik badarabil? 			
Elementu paraberbalak	<ul style="list-style-type: none"> • Egoerari dagokion doinua erabiltzen du? • Erritmo orekatuan hitz egin eta diskurtsoaren etenaldiak ongi markatzen ditu? • Seguratasunez begiratzen die solaskideei? • Diskurtsoari indar handiago emateko gorputzaren lengoia erabiltzen du? 			

.....

MODERATZAILEENTZAKO ORRIA. TESTUALIZAZIOA



- Osa ezazue I. jardueran prestatuturiko eskema eta egin ahozko probasaioa.

Sarrerako agurra

.....

Gaiaren aurkezpena

.....

Datu aipagarrien kontestualizazioa

- Galderaren nondik norakoak:
- Eztabaidaren xedea:
- Polemikak ukitzen dituenak:

Gatazka-gune nagusiak

-
-
-
-

Debaterako gomendioak

.....

Hasierako hitzartze txandaren sarrera

.....

.....

- Azalpena hobetze aldera, saia zaitezte jarraibide hauek betetzen:

Alderdiak	Irizpideak	Bai	Gutxi	Deus ez
Egokitzapena	<ul style="list-style-type: none"> • Parte-hartzaileei eta ikusleriari errespetuzko diosala egin die? • Aurkezpeneko denbora neurritz hartu du (hiru bat minutu)? • Hizkera egokian eta egoerarako aprobean mintzo da? 			
Koherentzia	<ul style="list-style-type: none"> • Gaia eta duen interesa argiro azaltzen du? • Debatearen xedea zehazki adierazten du? • Auziarekin loturiko alderdi gatazkatsuak egokiro aurkezten ditu? 			
Kohesioa	<ul style="list-style-type: none"> • Diskurtsoa antolatzeke lokailurik badarabil? • Kausa eta ondorioaren arteko erlazioak adierazteke lokailurik badarabil? 			
Elementu paraberbalak	<ul style="list-style-type: none"> • Egoerari dagokion doinua erabiltzen du? • Erritmo orekatuan mintzatzen da eta diskurtsoaren etenaldiak ongi markatzen ditu? • Segurtasunez begiratzen die solaskideei? • Diskurtsoari indar handiago emateko gorputzaren lengoia erabiltzen du? 			

.....

2.3.4

3. modulua - ELKARRERAGINA DEBATEAN

Hirugarren modulu honetan debatego elkarreraginaren oinarritzko alderdiei buruzko gogoeta planteatzen da. Antolakuntza zertu ondotik (1. modulua) eta dokumentazioa eta argudiobidea landuta (2. modulua), beste xehetasun batzuk ere kontuan hartzea komeni da, hala nola, hitzartzeen modalizazioa, solaskideari entzutea eta errefusatzea, diskurtsoaren kohesioa eta lengoaia paraberbala. Alderdi horiek guztiak garrantzi handikoak dira debatego parte hartzea hobetzeko.

I. jarduera

Modalizazioa

Modalizazioa prozesu bat da, zeinen bidez igorleak bere arrazak uzten dituen diskurtsoan elementu deiktikoak erabiliz (adizlagunak, izenordainak, adjetibo determinatzaileak), balioespen adjetiboak, konotazioko terminoak, etab. Auzi honetan sartzen da, beraz, parte-hartzailea debatego aurkezteko modua. Jarduera honetan ahaleginak egiten dira ikasleria modalizazioaren ahalmenez kontzientziatzeko, bai eta solaskidearentzat desatsegina izanen ez den eskema bati doitzearen komenigarritasunaz ere, kontuan izan dezan.

Horren haritik, María Grauk (Vilà, 2002, 83-94) emandako zehaztapenei jarraikiz, era horretako diskurtsoetan mintzamoldea zaindu beharra dago, ez oldarkor ez mehatxagarri ere gerta ez dadin. Hori guztiz lotua dago argudiobideak izan ditzakeen indarkeriari eta inposizioari uko egitearekin. Diskurtsoaren baitan kortesia eransteak argudiatze estrategiaren eragina areagotzen ahal du. Proposatutako jardueretan hainbat ariketa planteatzen dira kortesia hobetzeko, Grauk (Vilà, 2002:94) berriro landutako Leechen ereduari segika. Anna Crosek, alabaina, gaiaren gaineko beste ikuspuntu interesgarri batzuk laburbildu ditu (Vilà, 2002: 79-80), gogoan eduki beharrekoak.

María Grauk azpimarratu duen beste alderdi bat da esaldien edukiak balidatzea, autoritate-argudioetan gerta ohi den bezala inoren diskurtsoak itsasten direnean. Komeniko da alderdi hori ere lantzea.

TALDE LANAREN ORRIA. MODALIZAZIOA

- a. Modalizazioa da igorleak diskurtsoan zehar uzten duen arraiza multzoa. Testu bat oso modalizatua izanen da igorlearen presentziaren adierazleak ugari agertzen dituen. Elementu modalizatzaileen artean hauek aipa ditzakegu:
- Baliabide prosodikoak: bolumena, doinua, erritmoa, etenaldiak, hanpadura, azentua...
 - Gorputzaren baliabideak: begirada, keinuak.
 - Elementu morfosintaktikoak: izenordainak, erakusleak, edutezkoak...), adjetibo determinatzaileak (erakusleak, edutezkoak...), aditz formak (lehenengo pertsonaren erabilera), aditzlagunak, aditz perifrasiak, lokailuak, hitzen hurrenkera...
 - Elementu lexikosemantikoak: balioespeneko adjetibazioa, konotazioko lexikoa (balio kulturala, politikoa edo erlijiosoa duten adierazpenen erabilera).
- b. Aurrekoa kontuan izanik, egin itzazu taldean ondorengo ariketak ereduari jarraikiz. Modalizazio gutxiko edo anitzeko adierazpenetik abiatuz, modalizazioa mailakatu behar da aipatu bitartekoez baliatuz. Jakina, talde lanari esker testuak biltzen ez dituen elementu paraberbalak sartuko dira.

HASIERAKO ESALDIA

Establezimendu honetan zakurrak sartzea debekatua dago.

Modalitate aldatua

Sentitzen dut, baina ez dugu konpainiako animaliarik onartzen.

Modalitate aldatua

Ezin dut sinetsi! Ez duzu iragarkia irakurri? Hemen ez dugu horrelako animalia gogaikaririk nahi.

HASIERAKO ESALDIA

Ezin dut gehiago! Lan hau baino aspergarriagorik!

Modalitate aldatua

Modalitate aldatua

HASIERAKO ESALDIA

Ene iritziz Gobernu honen politika ekonomikoa makurra da zinez, eta herriaren etorkizuna hondamendira darama.

Modalitate aldatua

Modalitate aldatua

HASIERAKO ESALDIA	Astelehen arratsalderako euria iragarri dute.
Modalitate aldatua	
Modalitate aldatua	
HASIERAKO ESALDIA	Hara! Ze ezustekoa! Azkenik, behingoan eman didate ditzosozko beka hura!
Modalitate aldatua	
Modalitate aldatua	

c. Begira ondoko taulari eta egin ariketak hor jarritako adibideekin:

Esaera	Azalpena.
Sotiltasuna	Solaskideari hitz egiteko baimena eskatzea: “Zilegi bazait, esanen nizuke...”
Eskuzabaltasuna	Solaskideei mesede egitea azpimarratzen da: “Hitz egin nahi nuke guztien onerako izanen den puntu bat argitzeko...”
Onespena	Bestearenganako errespetua agerrarazten da norberaren ikuspuntua azaldu baino lehen: “Badakit zeure arrazoiak dituzula hori esateko, baina, hala ere, iruditzen zait...”
Apaltasuna	Bestearen balioespena azpimarratzen du: “Ongi dakit gai honetan aditua zarela: baina, agian, ez ote liteke...”
Adostasuna	Solaskideen arteko adostasuna jartzen du agerian, nahiz eta bere desadostasuna agertzeko aitzakia besterik ez izan: “Auzi honetaz, oro har, ados gaude; baina, hala ere, ene ustez...”
Begikotasuna	Solaskidearekin ongi konpontzen dela azpimarratzen saiatzen da: “Gure artean konfiantza dagoenez eta ederki konpontzen garenez, garbi esanen dizut, ez nator zurekin bat...”

Irudikatu bi kasu hauek eta egin ariketak horiekin aurreko esaerak oinarritzat hartuz:

- Klasean proposatu dute kurtso bukaerako afari bat antolatzea. Afariaren aurretik futbol partida egitea erabaki da. Zuetako batek defendatuko du, jendetasunezko arauak aplikatuz, hobe dela afal aurreko beste jarduera bat aukeratzea.
- Klasean planteatu da ikasturte bukaerako bidaia Ibizara egitea. Zuetako bat aurka dago eta beste aukera bat proposatuko du, taulako esakunak erabiliz.

d. Argudioak eratzean, maiz erabiltzen da autoritate-argudioa. Horrelakoetan norberaren ikuspuntua berretsi behar da aditu baten edo erakunde ospetsu baten bermeaz. Komeni da, hortaz, gogoraraztea baliabide hori modu egokian erabiltzeak berekin dakarrela autoritatearen nortasuna adieraztea eta autoritate izaera laburki bederen arrazoitzea. Zentzu horretan, esate baterako, inkoherentea litzateke ekonomiari buruzko argudio tekniko baten indargarri abeslari popular baten aipamena egitea. Hori gogoan hartuz, azal itzazu honako baieztapenei buruzko autoritate-argudioak:

- Komeni da fruta eta barazkiak jatea eta haragia dosifikatzea dieta orekua izateko.
- Eliteko kirolariek bizimodu ordenatua behar dute izan beren esparru pertsonalean.
- Espainiar turismo sektorea beste destino batzuekin lehiatuko bada, bere eskaintza dibertsifikatu beharko du.
- Garapen bidean dauden herrialdeekiko lankidetzak ezinbestekoa da inmigrazioaren egitea bideratzeko
- Kirola neurritz egiteko ohitura noraezekoa da buru eta gorputzaren osasun ona izateko.

2. jarduera

Entzutea: birformulatzea eta errefusatzea

Dolzek eta Schneuwlyk (2006: 45-46) debate arautuari buruzko beren eredu didaktikoan birformulatze, berreskuratzeko eta errefusatzeko mekanismoen garrantzia azpimarratzen dute, ikaskuntza arloko xede gisa. Izan ere, behin eta berriz aipatu beharko den alderdietako bat besteari entzutea da. Solaskideek besteen iritziak aintzat hartu beharko dituzte eta besteen diskurtsoa birformulatu eta norberarenari atxiki. Urrats hori egin beharkekoa da, gero errefusatzeari ekiteko. Alde horretatik, komeni da aipatutako jendetasunezko arauak erabiltzea.

.....

Jarraian proposatzen diren jarduerak ere taldeka burutuko dituzte eta jendetatu-nezko trataera birformulazioarekin eta errefusatzearekin lotuko dute. Markatzaile diskurtsiboen betekizuna berrikusi behar da «...-ari buruz, ...-ari dagokionez, ...-(r)en gainean, ...-(r)ekin loturik» eta, orobat, modalizazioaren erabilera kortesian, besteren diskurtsoaren alde positiboak goraipatuz.

LAN ORRIA. ENTZUTEA: BIRFORMULATZEA ETA ERREFUSATZEA



Taldea biribilean jarririk, kide batek irakurriko du hasierako baieztapena. Jarraian, taldeko ikasle guztiek, hasi eskuinetik eta testua irakurri duenak bukatuz, iritzia birformulatuko dute eta errefusatuko. Ikasle bakoitzak, hortaz, aurrekoak dioena aditu eta gero, hark esandakoa birformulatu eta errefusatuko du.

- Adibidea. Hasierako baieztapena: Pedrok dio institutuan erretzeak zilegi beharko lukeela izan ikasleek beren askatasuna erabiltzen ikas dezaten. “A” ikaslearen erantzuna: Pedrok institutuan erretzeko askatasunari buruz dioena interesgarria iruditzen zait; hala ere, ez nago guztiz ados. Uste dut, horren gainetik, giro osasungarrian bizitzeko eskubidea bermatu behar dela. “B” ikaslearen erantzuna: egia, “A”k dioen bezala eskubidea dugu giro osasungarrian bizitzeko eta, arestian adierazi denez, askatasunean hezi behar da; alabaina, institutu batek ezin du funtzionatu horrelako ikastetxeetan erretzea debekatzen duten arau orokorretatik kanpo.
- Lukasen aitak uste du Bigarren Hezkuntzan neskek eta mutilek ikastetxe berezietan banatuta ikasi beharko luketela, arreta-galera saihesteko eta eskolako errendimendua jaitsi ez dadin.
- Luisaren ustez, atzerriko filmak ez lituzkete gaztelaniara bikoiztu behar. Horrela, ikusleak azpitituluetara ohituko lirateke eta laguntza bikaina izanen lukete hizkuntzak ikasteko.
- Anari iruditzen zaio hizkuntza-irakasgaietan derrigorrezko irakurketen sistema kaltegarria dela. Irakurtzeko gogoia sortarazi ordez, ikasleek behartutzat ikusten dute beren burua eta ez dute irakurketaz gozatzen.

3. jarduera

Diskurtsoaren kohesioa

Debatearen prestakuntzan indartu beharreko alderdi ugarien artean testuaren kohesioa dago. Diskurtsoaren sendotasuna bermatzen duen ezaugarria da, mekanismo morfosintaktikoen eta lexikosemantikoen bitartez. Jarduera horrek xede bikoitza du: alde batetik, ikasleak ohartaraztea beren kabuz erabiltzen dituzten baliabideez; beste alde batetik, horiek trebeki sartzea norik bere ahozko adierazpidean. Asmo horrekin, aurrena azalpen labur bat egitea planteatzen da kontzeptu horri eta kohesiorako mekanismo mota desberdinei buruz. Jarraian, ezaugarri partzialak landuko dira, hala nola ordezkatzeko morfosintaktikoa, aldaera lexikosemantikoa eta lokailuen erabilera. Proposaturiko jardueren helmuga parte-hartzaileen eta moderatzailearen hastapeneko hitzartzeak, eduki hauen argitan ebaluatu beharko direnak, berrikustea izanen da.

TALDEKAKO LANAREN ORRIA. TESTUAREN KOHESIOA

Alde batetik, testua indartzen dute honako hauek: erlazio anaforikoek (zeinek aurreko elementuak aipatzen baitituzte), erlazio kataforikoek (ondotik helduko direnen aurrekariak) eta lotura deiktikoen, hots, solaskideak edo espazio zein denborazko koordinadak adierazten dituen sare batek. Horretarako, izenordainez, adjetibo determinatzaileez, adizlagunez eta abarrez baliatzen dira. Adibidez, “Juan ikusi nuen, zure mezua eman eta hau iragarri nion: bihar ezkontzekoak zaretela”. Lehenengo perpausaren ondorengo aditzetan badakigu Juan dela erreferentea; “hau” izenordain erakuslea ondorengo ideiaren aurrekaria da eta katafora gisa funtzionatzen du; azkenik “zure” adjetibo edutezkoak eta “bihar” adizlagunak erreferentzia deiktiko gisa funtzionatzen dute.

Kohesio lexikosemantikoaz denaz bezainbatean, mekanismo franko daude, besteak beste, hitz baten errepikapen hutsa «txirrindularia – txirrindularia», sinonimo batez ordezkatzeko «txirrindularia – karrerista» edo perifrasi baten bidez «Indurain – Atarrabiako karrerista». Ildo horretatik, metafora bezalako bitarteko teorikoak «tropela – suge koloreaniztuna» edo metonimia «idazlea – luma» kohesio-elementu gisa funtziona dezakete. Era berean, barne hartzeko erlazio semantikoek, hau da, hiperonimoaren «zuhaitza» eta hiponimoaren «pagoa» artean suertatzen direnek, funtzio hori ere betetzen dute. Horrela, eremu semantiko zehatz bat agertzeak, adibidez, zuhaitza hitza, testua nabarmen mugatzen du. Eragin bera sortzen dute asoziazio-erlazioek, hau da, ezaugarri semantiko baten ondorioz ageri direnek, edozein dela ere horien kategoria morfologikoa, “zuhaitza, landatu, oihantsua” hitzen artean gertatzen den bezala.

Azkenik, loturako elementuak funtsezko faktoreak dira testua kohesionatzeko. Perpausaz gaindiko elementuak dira, bi perpausen arteko erlazioak markatzen dituzte edo alboan duten perpausari buruz egin behar den interpretazioa zehazten. Gaingiroki, erlazio logikoak markatzen dituzten lokailuak nabari daitezke, adibidez kontrajartzekoak: «hala ere»; ondorioa adierazten dutenak: «hortaz»; kausa: «horregatik»; baldintza: «horrela bada...»; testua antolatzen dutenak, zatiak adieraziz «aurrena, hurrena, azkenik...»; edo diskurtsoaren interpretazioa orientatzen dutenak, gaia jakinaraziz «...iritziari dagokionez...», edo ikuspuntua «ikuspegi juridikotik...».

Aurrekoa kontuan izanik, egin itzazue testuaren kohesioa hobetzea helburu duten ondorengo ariketak:

- a. Saihets itzazu testu honetan premiarik gabeko errepikak, kohesio morfo-sintaktikoaren elementuak erabiliz:

Santander banketxearen filiala saltzeko operazio batean, Fernández de la Vega presidenteordearen hitzetan “elkarrizketaren eta negoziazioaren bidez” burutzen ari zen hartan, Santanderrek Venezuelan Chávezekin eta Chávezen zerbitzu sekretuekin gogor borrokatzen zuen bitartean, Santanderren kotizazioa Ibex-en egonkor mantentzen zen inbertsoreen itzaropenari esker.

- b. Hiztegi baten laguntzaz, testuan letra lodiz ageri diren hitzak ordezka itzazue semantikoki zerikusia duten beste batzurekin:

Ness aintzirako munstroaren agerraldi **lausorik** ezean, ongi dator Pascal Henry gourmet suitzarraren desagerpen **bitxia**, ekainaren 13an El Bulli jatetxean afaldu ondoren **agertokitik lekutu** baitzen. Misteriorik gabeko abuztua ez da ez abuztua ezta deus ere. **Michelin gidako hiru izarreko** jatetxeetarako zaletasun garestia duen ustezko mezulari horren kontakizunak elementu guztiak ditu pantailara begira erne egon gaitezen. Ikusten ari garenez, kasu zirraragarri honetan bi dira **ikerketa lerroak**, Acebesek esanen zukeen bezala: a) diruaren **ibilbidea** (klasikoa serie beltzeko kontakizun orotan) edo Pascal jaunaren ibilaldi hura, munduko **68 top** jatetxetan barna egin zuena, nork **finantzatu** ote zuen ikertzea; eta b) **lurrak irentsi duen** pertsonajearen eta haren biografiaren azterketa, xehetasunez betea, osabaren laguntzarekin egina, nahiz eta, agi danez, harek ere deus gutti dakien bere iloba **pantagrueliarraz**. Henryri buruzko espekulazioek Ruiz Zafónen salmenta handiko liburu baterako gaia emanen lukete.

(Francesc-Marc Álvaro, *La Vanguardia*, 7-8-2008)

- c. Sar itzazue testuaren hutsuneetan kokatu beharreko lokailuak: “gainera, -i dagokionez, bistan denez, beste alde batetik, jakina, -ekin loturik, guztiarekin ere”:

Mediterranear kostaldean medusak agertu izanak opor egun hauen lasaitasuna zapuztu du. Horrelakoak dabiltzala iragartzen duen banderak erne jartzen ditu bainulari despistatuak eta benetako buruhaustea sortarazten, udaminean uretan ezin sartu izana ergelkeria irudituko zaio egoera horretan ez dagoen bati., ez da horrela: hondartzaren xarma nagusietariko bat horixe baita, hain zuzen ere, bainatzea., pentsa ezazue haurrek inguraturik zaudetela, bainatu nahi dutela-eta denak oihu batean, baina debekatu egin behar, ordea, uretan sartzea. Hara zer burubidea, esanen didazue zer egin daitekeen hondartza batean, bainatzea ez bada?....., bai, badakit eguzkia ere hartzen ahal dela, itzalpean ere egon daiteke edo zure esparrua defendatzen saiatu toalladun mugakideak lekua jan ez diezazun. eguzkia hartzearena badakizue dermatologoek ez hartzea aholkatzen dutela. Beste bi aukerei, zuen ustez horretarako merezi ote du etxetik irtetzea?

.....

d. Oraingo honetan elementu horiek guztiak aplikatu behar zaizkio ordezkariaren (edo moderatzailearen) hasierako hitzaldiari. Egin berriz hitzartzeen probasaioak eta gero aplikatu ebaluazio plantilla hau:

Irizpidea	Ítem	Bai	Gutxi	Deus ez
Kohesio morfosintaktikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Behar direnean, modu naturalean erabiltzen dira mekanismo anaforikoak eta kataforikoak? • Komeni bada, deixi erreferentziak sartzen al dira solaskideak eta testuingurua aipatzerakoan? 			
Kohesio lexiko-semantikoa	<ul style="list-style-type: none"> • Hitz baten errepika gogaikarria saihesten da? • Sinonimoak erabiltzen dira aldaera lexikoa areagotzeko? • Lexikoa aberasteko hiponimoen eta hiperonimoen jokora jotzen da? • Errepika gogaikarriak saihesten dira perifrasiak, metaforak edo metonimiak erabiliz? 			
Lotura	<ul style="list-style-type: none"> • Diskurtsoaren zatiak markatzeko lokailurik erabiltzen da? • Diskurtsoaren erlazio logikoak lokailuen bidez indartzen dira? • Diskurtsoaren interpretazioa gaiaren, ikuspegiaren edo modalizatzaileen lokailuekin orientatzen da? 			

4. jarduera

Elementu paraberbalak

Debatearen bilakaeran hitzen bidezko komunikazioa osatzen duten bitarteko paraberbalek eragin nabaria dute. Honelako elementuak dira: begiradak, keinuak eta faktore prosodikoak, hitzen bidezko diskurtsoa orientatzen eta are zuzentzen dutenak. Horregatik, beharrezkoa dirudi kode paraberbalak lantzeak, ikasleei horien eraginaz ohartarazi eta asimilazioa bultzatzeko.

Helburu horrekin planteatzen da, aurrena, ariketa bat egitea, kontzeptu nagusiak finkatzeko asmoz. Gero, argudiozko bakarriketa bat prestatu eta antzeztea proposatzen da. Azkenik, atal honetan landutako irizpideak hasierako hitzartzeei aplikatzea gomendatzen da.

LAN ORRIA. ELEMENTU PARABERBALAK

Debatea ahozko genero bat da eta, orain arte ikusi dugunez, antolakuntza alderdiak, dokumentazioa eta argudiobidea, bai eta komunikazio ahozkoaren eta paraberbalen estrategiak ere, gero eta hobekiago menderatzea eskatzen du. Azken horien artean, gogoan edukitzea komeni da keinuen, begiraden eta prosodiaren (doinua, erritmoa, etenaldiak...) garrantzia, oso tresna baliagarriak baitira ahozko komunikaziorako.

a. Hori kontuan hartuz, esazu ea baieztapen hauek egiazkoak ala faltsuak diren:

KEINUAK		
Esaldia	Egia	Faltsua
Debatean ez da keinurik egin behar solaskideek arreta gal ez dezaten.		
Eskuekin eta aurpegiarekin eginiko keinuek ahozko hizkera indartzen dute.		
Jarrera adeitsua eragingarriagoa da betilun agertzea baino.		
Neurriz gaindiko keinuak kalterako dira: naturaltasuna hobe.		
Debatea jendaurrean egiten baita, urruntasunez aritu behar da.		

BEGIRADAK		
Esaldia	Egia	Faltsua
Ikusle-entzuleei ez dago zertan begiratu, debatean ez baitute parte hartzen.		
Besteren iritzia birformulatzean, inplikaturako pertsonari begiratzea komeni da.		
Urduritasuna menderatzeko, hobe begiak inon ez jartzea.		
Ez da komeni denbora osoan pertsona bati begira egotea.		
Gidoiari begirik kendu gabe aritzeak segurtasun eza adierazten du.		

PROSODIA		
Esaldia	Egia	Faltsua
Hobe da gorabeherarik gabeko doinua erabiltzea, hala hasierako hitzartzean nola ihardespenetan.		
Denbora askorik ez dagoenez, bizkor hitz egitea komeni da.		
Etenaldi bat garaiz egiteak asko laguntzen du: aukera ematen du pentsatzeko, interesa mantentzeko...		
Debateari emozioa emateko, ongi dago doinu erasokorra erabiltzea.		
Segurtatu behar da entzuleek hizlariei ongi entzuten dietela.		

- b. Lehendabiziko ariketa hau bakarka buruturik eta taldean komentatu ondoren, komeni da gogoeta horiek honela jartzea praktikan. Taldeek aukeratu izan den gaiari buruzko hitzartze labor bana prestatu beharko dute. Hiru bat minutuz mintzatu ondotik, beste ikasle batek, gutxienez, ezeztatu beharko du, aipatu alderdiak zainduz, betiere:
- Trafikoko arau-hausteak maiz egiteaz gainera larriak izaten direnez, isunak eta horien zenbatekoa gehitu beharko liriateke.
 - Kasu oso larrietan eta prebentzio gisan, heriotz zigorra proposatu beharko litzateke.

- Hiri handietako kutsadura eragoztearren, ibilgailuen zirkulazioa debekatu beharko litzateke, txandaka: hilabete batean matrikula bikoitiak eta hurrengoan bakoitiak.
- Piromanoen egintzak eragozteko, udako aro arriskutsuetan jendeari oiha-netan sartzea debekatu beharko litzaioke.
- Trafiko istripuetan maiz gazte jendea tartean izaten delarik, ibilgailuak gidatzea debekatu beharko litzaietxe, harik eta 21 urte bete arte.

c. Azkenik, hasierako azalpenak berrikustea komeni da eta debatean izan beharreko gainerako parte hartzeak aurreikustea, irizpide paraberbal hauen argira:

KEINUAK		
Kontzeptuak	Bai	Ez
Argudioen lagungarri eskuak erabiltzen dituzu?		
Hitza hartzean postura zurruna ez izateaz oroitzen zara?		
Hitza hartzean beste parte-hartzaileak gogoan edukitzen dituzu?		
Beste solaskideak gogait ditzaketen keinu oldarkorrak saihesten dituzu?		
Gogo onez entzuten dituzu besteek esandakoak?		

BEGIRADAK		
Kontzeptuak	Bai	Ez
Saiatzen zara modu beretsuan begiratzen parte-hartzaile guztiei?		
Besteen esanak arretaz entzuten dituzu?		
Begirada oldarkorrak edo gaitzespenezkoak saihesten dituzu?		
Idatzizko gidoia begirik altxatu gabe segitzen duzu?		
Arreta jartzen duzu zurekin zerikusia duen zerbaitetaz hitz egiten denean?		

.....

PROSODIA		
Kontzeptuak	Bai	Ez
Edukiari dagokion doinuan mintzo zara?		
Doinu betiberdina saihesten duzu?		
Zure txanda aprobetxatzearen presaka mintzo zara?		
Idea nagusiak ahoskera indartuz nabarmentzen dituzu?		
Diskurtsoaren zatiak markatzearen, etenaldiak modu estrategikoan kokatzen dituzu?		

2.3.5 AZKEN EKOIZPENA

Sekuentziak, planteatu den bezala, komunikazio trebetasunak, azken debatearen ekoizpenera bideraturikoak, eskuratzea du helburu. Sekuentziaren arrakasta ez datza hainbeste produktuaren perfektzioan, aldez aurretik ezarritako ereduaren arabera, baizik eta ikasleen kontzientziazioan eta benetako aurrerakuntzan, debatea bezalako genero formal bateko komunikazio ahalmenari dagokionez.

Azken jardueraren bilakaerarekin batean antzeppen egokia egin beharko litzateke, lekuzko elementuek ere eragina baitute komunikazioan. Ohiturari jarraikiz, moderatzailea parte-hartzaileen arteko toki ageri batean jartzea gomendatzen da, jendaurrean, zeina eztabaida arretaz entzuteko moduan kokatu beharko baita. Komeni da, halaber, beste xehetasun batzuk ere kontuan edukitzea, hala nola dekorazioa eta are jantziteria ere, horiek ere eragina izanen dutelako azken emaitzan. Uste izatekoa da taldeak irakasleen esku hartzerik gabe antolatuko duela jarduera, gero ebaluazioan izanen baitute beren eginbarra.

Alde horretatik, bai irakasleak eta baita ikasleek ere, debatea ebaluatu beharko dute sekuentziaren plangintzan adierazitako xedearen arabera. Prozesua errazteko, honako taula hau proposatzen da:

.....

AZKEN EKOIZPENAREN EBALUAZIOA

1. Antolakuntza alderdiak

*0-10
bitarteko nota*

- Debaterako gai aproposa aukeratu da?
- Moderatzailearen hautaketa egokia izan da?.....
- Debatearen bilakaerarako ordezkari egokiak hautatu dira?
- Debatearen jarraipena eta partaidetza errazteko, ikasgela behar bezala apailatu da?.....

2. Documentazioa eta argudiobidea

*0-10
bitarteko nota*

- Nabari da parte-hartzaileak gaiaz informatu direla?
- Informazio iturri desberdinak konbinatzen ahalegindu dira?
- Dokumentatzeko eta argudiatzeko autoritate baliabidea erabili dute?
- Tesiaren defentsan argudio mota desberdinak erabili dira?
- Argudioak ongi uztartu dituzte tesiarekin?.....

3. Elkarreragina debatean

*0-10
bitarteko nota*

- Parte-hartzaileek era egokian modalizatzen dute diskurtsoa?
- Hitza hartzen dutenean debeteari dagozkion jendetasunezko formulez baliatzen dira?.....
- Parte-hartzaileek arretaz segitzen dute solaskideek eta moderatzaileak esaten dutena?.....
- Besteek esandakoa birformulatzen dute gero errefusatzeko?.....
- Kohesio mekanismoak erabiltzen dituzte?.....
- Testuaren zatiak eta diskurtsoaren erlazio logikoak lokailuen bidez indartzen dituzte?.....
- Keinuen kodea erabiltzen dute diskurtsoari indarra emateko? ...
- Hitz egitean jarrera zurruna edo egonkorra saihesten dute?.....
- Solaskideei eta ikusleei modu naturalean begiratzen diete?
- Ezagun dute besteek esaten dutena arretaz segitzen dutela?.....
- Behar bezala modulatzten dute doinua, erritmoa eta etenaldiak bezalako faktoreak?.....
- Doinua aldatzen dute sekuentzia nagusiak indartzeko eta diskurtsoaren zatiak markatzeko?.....

.....

BIBLIOGRAFIA

- ADAM, J.-M. (1992): *Les textes. Types et prototypes*, Paris, Nathan.
- CAMPS, A. (1994): "Projectes per aprendre llengua", *Articles* 2, p.7-20 orr.
- CONCA, M., A. COSTA, M.J. CUENCA y G.LLUCH (2003): *Text i gramàtica. Teoria i pràctica de la competència discursiva*, Bartzelona, Teide.
- DOLZ, J. y B.SCHNEUWLY (2006): *Per a un ensenyament de l'oral*, Valencia/Barcelona, I.U. de Filologia Valenciana/Publicaciones de la Abadía de Montserrat (*Pour un enseignement de l'oral. Initiation aux genres formels à l'école*, Paris, ESF Éditeurs, 1998).
- DOLZ, J. y M.VILÀ (1997): "L'oral formal", *Articles (Monogràfic sobre l'oral formal)*, p.5-8 orr.
- MARTÍNEZ, A. (2004): *Cómo preparar una exposición oral en todas las áreas de secundaria*, Iruña, Hezkuntza Departamentua, Blitz, Eskola Liburutegien Bilduma, laranja saila, I. zk.
- PAYRATÓ, LI. (2003): *Pragmàtica, discurs i llengua oral. Introducció a l'anàlisi funcional de textos*, Bartzelona, UOC.
- PERELMAN, C. y L.OLBRECHT-TYTECA (2006): *Tratado de la argumentación: la nueva retórica*, Madril, Gredos.
- SCHNEUWLY, B. et al. (1997): "L'oral s'ensenyà! Prolegòmens per a una didàctica de la producció oral", *Articles*, p.9-18 orr.
- SCHNEUWLY, B. y D.BAIN (1993) : « Mécanismes de régulation des activités textuelles : stratégies d'intervention dans les séquences didactiques », en ALLAL, L., D.BAIN y Ph.PERRENOUD (eds.): *Évaluation formative et didactique du Français*, Neuchâtel/Paris, Delachaux/Niestlé, p.219-238 orr.
- VILÀ, M. et al. (2002): *Didàctica de la llengua oral formal. Continguts d'aprenentatge i seqüències didàctiques*, Bartzelona, Graó.
- VV.AA. (1997): *El debate: reglas y estrategias*, Madril, Foroidea-Caja Madrid.

.....



sorta **Urdina**

Blitz Hezkuntza Departamentuan

1. Nafarroako eskoletako liburutegien azterketa: hurbiltze saioa Hobetzeko gakoak
2. Eskolako liburutegia nola antolatu Alderdi tekniko eta pedagogikoak
3. Saillkapen Hamartar Unibertsala Eskola Curriculumetan Unibertsitatekoak ez diren eskoletako liburutegietan fondoak gaiztatu gaitzeko jarraibideak
4. Eskola liburutegiaren informatizazioa. ABIES 2.0 programa
5. Eskolako liburutegiko funtsak eta ikastetxeko irakurketa planak

sorta **Berdea**

Blitz Eskolan

1. MARIANO CORONAS Eskolako liburutegia Irakurtzeko, idazteko eta ikasteko gunea
2. VÍCTOR MORENO Irakurketa, liburuak eta irakurtzera bultzatzea Hausnarketak eta proposamenak
3. VILLAR ARELLANO YANGUAS Liburutegia eta ikaskuntza autonomia Baliabide dokumentalak aurkitzeko, ulertzeko eta balaitzeko gida didaktikoa
4. M^a JESÚS ILLESCAS Eskolako liburutegian nola ikasi eta ikertu Erabiltzaileak iprestatzen
5. C.P. «ÁLVARA ÁLVAREZ» de Falces **La formación de usuarios y el uso de la información** Una experiencia didáctica en la biblioteca del Colegio Público de Falces (Navarra)

sorta **Horia**

Blitz Irakurtzearen alde

1. Ulermeneko irakurketa eskola curriculumean Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza
2. JESÚS AMADO MOYA Hizkera zientifikoa eta ulermeneko irakurketa zientzien arloan
3. ÁNGEL SANZ MORENO Ulermeneko irakurketa eta DBH-KO eskola testuak
4. VÍCTOR MORENO Zertarako irakurri? Ulertzeko
5. ÁNGEL SANZ MORENO Irakurmena lantzeko jarduerak nola prestatu Lehen Hezkuntzako 3. Zikloa eta DBHko 1. Zikloa
6. Nola prestatu ulermeneko irakurketa plana DBH-ko institutu batean Bi adibide praktikoa
7. NATIVIDAD IRAIZOZ SANZOL FERMIN M.^a GONZÁLEZ GARCIA **El mapa conceptual: un instrumento apropiado para comprender textos expositivos**
8. VÍCTOR MORENO **Ikasleak irakurzaletzen ahotsa, sentimendua eta sormena erabiliz**
9. LUIS IZA DORRONSORO **Irakurketa plana Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan**
10. Modelo de fondo bibliográfico para una biblioteca escolar de E. Secundaria
11. MIGUEL ÁNGEL GARCÍA ANDRÉS **Irakurtzea eta idaztea Interneten garaiari** Irakurketaren eta idazketaren analisia eta proposamenak Bigarren Hezkuntzan

sorta **Gorria**

Blitz Idaztearen alde

1. PEDRO JIMENO **Idazmenaren irakaskuntza arlo guztietan**

sorta **Laranja**

Blitz ahozko adierazmenaren alde

1. ANA MARTÍNEZ MONGAY **Nola prestatu ahozko azalpen bat bigarren hezkuntzako arlo guztietan**
2. ANTONIO UNZUÉ UNZUÉ **Debaterako argudiatu. Bigarren Hezkuntzako arlo guztietarako proposamena**



Liburutegiko sagua